




DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Kale Garbiketa eta Hondakinak erretiratzeko Ordenantza

- Hasierako onarpena: Osoko Bilkura, 2002/10/31ekoa
- [Iragarpenaren argitaratzea: BAO, 245zk., 2002/12/24koa](#)
- Behin betiko onartzea: Osoko Bilkura, 2003/03/27koa
- [Testu osoa argitaratzea: BAO, 119zk., 2003/06/24koa](#)
- Aldaketa: Osoko Bilkura 2003/11/27koa
- [Aldaketa argitaratzea: BAO, 8zk., 2004/01/14koa](#)




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ÍNDICE

I. KAPITULUA.–XEDAPEN OROKORRAK	1
1. ARTIKULUA.- XEDEA	1
2. ARTIKULUA.- GARBIKETA ZERBITZUA BURUTZEKO ENPRESA KONTRATATUAK	1
3. ARTIKULUA.- EZARPEN ANALOGOAK	1
4. ARTIKULUA.- ARAUAK BETETZEA.....	1
5. ARTIKULUA.- LAN SUBSIDIARIOAK	2
II. KAPITULUA.– GARBIKETA PUBLIKOA.....	2
I. ATALA.–ERABILERA KOMUNAREN ONDORIOZ EGITEN DEN GARBIKETA PUBLIKOA.....	2
6. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOA.....	2
7. ARTIKULUA.- HONDAKINAK BILTZEA	2
II. ATALA.– OBRETAKO LANEN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN SORTZEN DEN ZIKINKERIA	3
8. ARTIKULUA.- ARAU OROKORRA	3
9. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAN ERAGINA DUTEN OBRAK ETA LANAK.....	3
10. ARTIKULUA.- PERTSONA ARDURADUNA	4
11. ARTIKULUA.- HONDAKINAK BIDE PUBLIKOAN UZTEA	4
12. ARTIKULUA.- GARBITZEKO BETEBEHARRAK	4
13. ARTIKULUA.- HORMIGOIA GARRAIATZEA	4
III. ATALA.–HAINBAT JARDUERAREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN ERAGINDAKO ZIKINKERIA	5
14. ARTIKULUA.- HONDAKIN-MATERIALAK MANIPULATZEA ETA AUKERATZEA	5
15. ARTIKULUA.- HONDAKINAK UZTEA	5
16. ARTIKULUA.- ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALAK GARBITZEA	5
17. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAK GARBI MANTENTZEA	5
18. ARTIKULUA.- ALTZARIAK ETA TRESNAK BERTAN BEHERA UZTEA	5
IV. ATALA.– HIGIEZINEN KANPOKO ELEMENTUAK ETA ZATIAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA	6
19. ARTIKULUA.- KONTSERBATZEKO ETA GARBITZEKO BETEBEHARRA	6
20. ARTIKULUA.- KONTSERBATZEKO ETA GARBITZEKO BETEBEHARRAREN ONDORIOZ SORTUTAKO BETEKIZUNAK	6
V. ATALA.–JABEGO PRIBATUKO URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA	6
21. ARTIKULUA.- ERABILERA PRIBATIBOA DUTEN URBANIZAZIOAK GARBITZEA	6
22. ARTIKULUA.- ORUBEAK ETA LURSAILAK	7




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

23. ARTIKULUA.- UDALAREN ESKU-HARTZEA.....	7
24. ARTIKULUA.- ERABILERA PUBLIKOA AREAGOTZEA PLANEAMENDU URBANISTIKOAREN ARABERA.....	7
VI. ATALA.-BIDE PUBLIKOAN ANIMALIAK EGOTEAK GARBITASUNEAN DUEN ERAGINA	7
25. ARTIKULUA.- ANIMALIAK EDUKITZEA	7
26. ARTIKULUA.- ANIMALIAK DARAMATZATENEN EGIN BEHARREKOAK	8
27. ARTIKULUA.- EKIPAMENDU BEREZIAK	8
28. ARTIKULUA.- ANIMALIEN PARTE-HARTZEA ESKATZEN DUTEN OSPAKIZUNAK.....	8
VII. ATALA.- HIRITARREK, ELURTE KASUETAN, BIDE PUBLIKOA GARBITZEKO EGIN BEHARREKOAK.....	9
29. ARTIKULUA.- ELURTEAK DIRENEAN	9
30. ARTIKULUA.- DEBEKATUTA DAGO ELURRA BIDE PUBLIKORA BOTATZEA.....	9
VIII. ATALA.-ORDUTEGIAK	9
31. ARTIKULUA.- GARBIKETAKO JARDUERA PRIBATUEN ORDUTEGIAK	9
 III. KAPITULUA.- URIAREN GARBIKETA, ERABILERA KOMUN BEREZIARI, PRIBATIBOARI ETA KALEKO MANIFESTAZIOEI DAGOKIENEZ.....	 9
 I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA	 9
32. ARTIKULUA.- EZARPEN-ESPARRUAREN HEDAPENA	9
33. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAREN ERABILERAK	9
34. ARTIKULUA.- GARBITZEKO BETEBEHARRA, EKINTZA PUBLIKOEN ANTOLAMENDU PRIBATUARI DAGOKIONEZ.....	10
35. ARTIKULUA.- DEFINIZIOAK.....	10
36. ARTIKULUA.- UDAL-BAIMENA	11
37. ARTIKULUA.- PUBLIZITATE-ELEMENTUEI DAGOZKIEN BETEKIZUNAK	11
II. ATALA.-BIDE PUBLIKOAN KARTELAK, PANKARTAK, BANDERATXOAK EDO PEGATINAK JARTZEA.....	11
38. ARTIKULUA.- DEBEKUA	11
39. ARTIKULUA.- BAIMENEN BALDINTZAK PUBLIZITATEA JARTZEKO ORDUAN	12
40. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK	12
41. ARTIKULUA.- BETEKIZUNAK	12
42. ARTIKULUA.- ERRETIRATZEA	12
III. ATALA.-PINTADAK.....	13
43. ARTIKULUA.- DEBEKUA	13
IV. ATALA.- FOILETOAK EDO ANTZEKOAK BARREIATZEA	13
44. ARTIKULUA.- PUBLIZITATE IDATZIA	13
 IV. KAPITULUA.- HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEA	 13




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

I. ATALA.–BALDINTZA OROKORRAK ETA ZERBITZUAK ESKAINTZEKO	
ESPARRUA	13
45. ARTIKULUA.- BILKETA-ZERBITZUA	13
46. ARTIKULUA.- HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN DEFINIZIOA	14
47. ARTIKULUA.- HIRI-HONDAKINTZAT HARTZEN EZ DIRENAK	14
48. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK	14
49. ARTIKULUA.- ZABORRAK BILTZEKO BAIMENDUTAKO PERTSONAK	15
50. ARTIKULUA.- BILKETA-ZERBITZUA	15
51. ARTIKULUA.- ZERBITZUA ESKAINTZEAREN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO TASA.	15
52. ARTIKULUA.- BILKETA-ZERBITZUA HONDAKIN BAKOITZERA EGOKITZEA	15
53. ARTIKULUA.- HONDAKINAK SAILKATZEKO ORDUAN IZAN DAITEZKEEN ZALANTZAK	15
II. ATALA.–ETXEKO ETA DENDETAKO ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZUA	15
54. ARTIKULUA.- UDALEKO BILKETA-ZERBITZUA	15
55. ARTIKULUA.- ZERBITZU BATETIK BESTERA HONDAKINAK BILTZEKO ARDURA IGORTZEA	16
56. ARTIKULUA.- ETXEKO HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA	16
57. ARTIKULUA.- ZABOR-BILKETA ZERBITZUA ERABILTZEKO ETA JASOTZEKO BEHARRA	16
58. ARTIKULUA.- HONDAKIN ZATITUAK	16
59. ARTIKULUA.- HONDAKINAK PILATZEA	16
60. ARTIKULUA.- HONDAKINAK UZTEKO DEBEKUA	17
61. ARTIKULUA.- UDALERRIKO ZABOR-BILKETA GUNEAK	17
62. ARTIKULUA.- HIRI HONDAKIN SOLIDOEN ZABORRONTZI ITZULGARRIAK	17
63. ARTIKULUA.- HONDAKINAK MANIPULATZEKO DEBEKUA	17
64. ARTIKULUA.- HONDAKINENTZAKO EDUKIONTZIAK JARTZEA BIDE PUBLIKOAN ...	18
65. ARTIKULUA.- EDUKIONTZIAK NOLA ERABILI	18
66. ARTIKULUA.- ZABOR-BILKETARAKO ONTZI ITZULGARRIAK ERRETIRATZEA	19
67. ARTIKULUA.- HONDAKIN SOLIDOEN EKOIZLEAK	19
68. ARTIKULUA.- SANEAMENDU-SAREAN ERAGINA DUTEN TRATAMENDU-METODOEN AURKAKO DEBEKUA	19
69. ARTIKULUA.- SANEAMENDU-SARE PUBLIKOA LIBRATZEA GAINEZKA EGITEN DUENEAN	19
70. ARTIKULUA.- UDALAREN BAIMENA HONDAKINEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ	19
71. ARTIKULUA.- ZABOR-BILKETAKO LANGILEEN LEGITIMAZIOA	19
72. ARTIKULUA.- ATEZ ATEKO ZABOR-BILKETA ZERBITZUA	20
73. ARTIKULUA.- HHSen KANTITATE GARRANTZITSUAK	20
III. ATALA.–ZABORRENTZAKO INSTALAZIO FINKOAK ERABILTZEA	20
74. ARTIKULUA.- HONDAKINAK BILTZEKO LOKALAK EDUKI BEHARRA	20
75. ARTIKULUA.- ZABORRENTZAKO GELAK ERAIKINETAN	20
76. ARTIKULUA.- HONDAKINAK LOKALETAN PILATZEA	21




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

77. ARTIKULUA.- ZABORRENTZAKO GELEN NEURRIAK	21
78. ARTIKULUA.- ZABORRENTZAKO GELEN HORNIDURA.....	21
79. ARTIKULUA.- HONDAKINENTZAKO LEKUAK ELIKADURA-ESTABLEZIMENDUETAN ..	22
80. ARTIKULUA.- ZABORRENTZAKO GELAK OSASUN-ZENTRO EDO ANTZEKOETAN ...	22
IV. ATALA.-HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZUAREN	
ERREGIMENA ETA ORDUTEGIA	22
81. ARTIKULUA.- BILKETA EGITEKO ORDUTEGIA	22
82. ARTIKULUA.- BILKETA-ZERBITZUAREN XEHETASUNAK	22
 V. KAPITULUA.- HONDAKIN-MATERIALAK APROBETXATZEA ETA GAIKA	
BILTZEA	23
 I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA	23
83. ARTIKULUA.- GAIKAKO BILKETA	23
84. ARTIKULUA.- HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA	24
II. ATALA.-GAIKAKO BILKETA-ZERBITZUA.....	24
85. ARTIKULUA.- GAIKAKO BILKETAREN HAINBAT SAIL	24
86. ARTIKULUA.- ONTZIAK	24
87. ARTIKULUA.- ONTZITZAT HARTZEN EZ DIRENAK.....	24
88. ARTIKULUA.- HONDAKINAK BEREIZIRIK GORDETZEA	25
89. ARTIKULUA.- EDUKIONTZIAK	25
90. ARTIKULUA.- HONDAKINEN JABEGOA.....	26
91. ARTIKULUA.- EKIMEN PRIBATUAK	26
 VI. KAPITULUA.-HIRI-HONDAKIN SOLIDO BEREZIEN BILKETA	26
 I. ATALA.-XEDAPEN OROKORRAK	26
92. ARTIKULUA.- HIRI-HONDAKIN SOLIDO BEREZIAK.....	26
93. ARTIKULUA.- BORONDATEZKO IZAERA.....	27
94. ARTIKULUA.- ALDEZ AURRETIKO ESKAERA	27
95. ARTIKULUA.- TASA	27
96. ARTIKULUA.- LARRIALDIAK	27
II. ATALA.- ELIKAGAIK ETA PRODUKTU HONDATUAK EDO IRAUNGIK	
BILTZEA ETA ANIMALIA HILAK JASOTZEA	27
97. ARTIKULUA.- BESTE HAINBAT HONDAKIN	27
98. ARTIKULUA.- ANIMALIA HILAK	27
99. ARTIKULUA.- ZERBITZUA ESKAINTZEA	28
100. ARTIKULUA.- BESTE ZENBAIT BETEKIZUN ANIMALIA HILEI DAGOKIENEZ	28
101. ARTIKULUA.- DEBEKUA	28
III. ATALA.-ALTZARIAK ETA TRESNAK JASOTZEA	29
102. ARTIKULUA.- ALTZARIAK ETA TRESNAK JASOTZEA	29
103. ARTIKULUA.- DEBEKUA	29



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


IV. ATALA.- BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK JASOTZEA	29
104. ARTIKULUA.- BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK	29
105. ARTIKULUA.- TITULARRARI EDO LEGEZKO JABEARI JAKINARAZTEA	29
106. ARTIKULUA.- IBILGAILUA ERRETIRATZEKO BORONDATEZKO ZERBITZUA	30
V. ATALA.-LOREZAINZAREN HONDAKINAK JASOTZEA	30
107. ARTIKULUA.- LOREZAINZAREN HONDAKINAK JASOTZEA	30

<u>VII. KAPITULUA.- OBRETAKO LURRAK ETA HONDAKINAK BILTZEA, GARRAIATZEA ETA ISURTZEA</u>	<u>30</u>
---	------------------

I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA	30
108. ARTIKULUA.- XEDEA	30
109. ARTIKULUA.- OBRETAKO LURRAK ETA HONDAKINAK	30
110. ARTIKULUA.- HELBURUAK	31
111. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK	31
112. ARTIKULUA.- UDALAREN ERABAKIAK	31
113. ARTIKULUA.- DEBEKUAK	31
II. ATALA.-OBRETARAKO KONTAINERRAK ERABILTZEA	32
114. ARTIKULUA.- OBRETAKO KONTAINERRAK	32
115. ARTIKULUA.- KONTAINERRAK KOKATZEKO BAIMENA	32
116. ARTIKULUA.- KONTAINER-MOTA DESBERDINAK ETA HORIEN KOKAPENA	32
117. ARTIKULUA.- BIDE PUBLIKOAN KOKATZEA	33
118. ARTIKULUA.- KONTAINERRAK ESTALTZEKO BETEBEHARRA	33
119. ARTIKULUA.- ERANTZULEAK	33
120. ARTIKULUA.- KONTAINERRAK ERRETIRATZEA	34
III. ATALA.-OBRETAKO HONDAKINAK ERRETIRATZEA ETA ISURTZEA	35
121. ARTIKULUA.- LURRAK ERRETIRATZEA	35
122. ARTIKULUA.- DEBEKUAK	35
IV. ATALA.-OBRETAKO LURRAK ETA HONDAKINAK GARRAIATZEA	35
123. ARTIKULUA.- GARRAIOA	35
124. ARTIKULUA.- GARRAIORAKO IBILGAILUAK	35
125. ARTIKULUA.- KARGA, DESKARGA ETA GARRAIO-LANEN GARBITASUNA	36
V. ATALA.-ORDUTEGIA	36
126. ARTIKULUA.- ORDUTEGIA	36

<u>VIII. KAPITULUA.- HONDAKIN SOLIDOAK TRATATZEA ETA DESEGITEA ETA ZABORTEGIAK</u>	<u>37</u>
---	------------------

I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA	37
127. ARTIKULUA.- XEDEA	37
128. ARTIKULUA.- DEBEKUAK	37
129. ARTIKULUA.- MATERIALAK ETA GAUZATZE SUBSIDIARIOA	37




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

130. ARTIKULUA.- ZERBITZUA ESKAINTZEA	37
131. ARTIKULUA.- HONDAKINAK UZTEKO BAIMENA.....	37
132. ARTIKULUA.- UDALAREN HELBURUAK HONDAKINEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ	37
133. ARTIKULUA.- TRATAMENDUA	37
II. ATALA.-HONDAKIN-EKOIZLEEN ERANTZUKIZUNAK	38
134. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUNA.....	38
III. ATALA.-ZABORTEGIAK	38
135. ARTIKULUA.- BILTEGIAK ETA ZABORTEGIAK	38
136. ARTIKULUA.- ZABORTEGI KLANDESTINOA	39
 IX. KAPITULUA.-HONDAKIN ARRISKUTSUAK.....	39
 I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA	39
137. ARTIKULUA.- XEDEA.....	39
138. ARTIKULUA.- HONDAKIN ARRISKUTSUAK.....	39
139. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK	41
140. ARTIKULUA.- ERANTZULEA	41
141. ARTIKULUA.- HONDAKIN ARRISKUTSUEN EKOIZLE TXIKIAK.....	41
142. ARTIKULUA.- HONDAKINEN DESAGERRARAZTEA SAIHESTEA	42
143. ARTIKULUA.- DEPOSITUAN SEI HILABETE BAINO GEHIAGO UZTEA	42
II. ATALA.- BAIMENAK ETA JARDUERA SAILKATUAK	42
144. ARTIKULUA.- JARDUERA SAILKATUA.....	42
 X. KAPITULUA.- IKUSKATZEA, ZAINZTA ETA KONTROLA	42
 145. ARTIKULUA.- INFORMAZIOA ETA IKUSKATZEA	42
146. ARTIKULUA.- NEURRI KAUTELAZKOAK	43
 XI. KAPITULUA.- ZIGOR ARAUBIDEA.....	43
 I. ATALA.-XEDAPEN OROKORRAK	43
147. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK	43
II. ATALA.- SAILKAPENA	43
148. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK	43
149. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ARINAK, LARRIAK ETA OSO LARRIAK	44
150. ARTIKULUA.- ZIGORRAK	44
151. ARTIKULUA.- BESTE ZENBAIT ARAU-HAUSTE.....	45
152. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN TIPOLOGIA	45
153. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE ARINAK	45
154. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE LARRIAK	46




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

155. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK	47
156. ARTIKULUA.- ZIGORRAREN ZENBATEKOA	47
XEDAPEN IRAGANKORRAK	48
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	48
AZKEN XEDAPENA.....	48
ERANSKINA: TERMINOLOGIA.....	49



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA

I. KAPITULUA.-XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da, jarraian aipatzen diren egoerak, jarduerak eta portaerak arautzea, betiere Udalaren eskumenen barruan:

- a) Bide publikoak garbitzea, hiritarren erabilera komuneakoak alegia. Halaber, jabego publiko eta pribatuko orubeen garbiketa ikuskatzea eta egitea.
- b) Klean egiten diren agerpen publikoen ondorioz Udalerrian geratu daitekeen zikinkeria prebenitzea eta udalarenak diren ondasunak garbitzea, erabilera komun bereziari eta pribatiboari dagokionez.
- c) Espazio publikoak eta udalarenak diren ondasunak garbi eta txukun edukitzea.
- d) Udal-barrutian hiri-hondakin solidoak (HHS) eta asimilagarriak biltzea.
- e) Udal-eskumenen esparruan, hondakinak bereizita biltzea.
- f) Elikagai galduak, altzariak eta tresnak, eta bestelako hondakin bereziak biltzea.
- g) Lanen, eraikuntzen, eraisketen eta bestelako jardueren ondorioz sortzen diren hondakinak edo zaborrak eta antzeko materialak pilatzea, kargatzea, garraiatzea eta isurtzea.
- h) Udalaren eskumenekoak diren kasuetan, hiri-hondakin solidoei eta asimilagarriei dagokienez, horien tratatzeko, aprobetxatzeko, biltegiratzeko eta desagerrarazteko sistemen eta ekipamenduen kudeaketa, kontrola eta ikuskapena burutzea.

2. Artikulua.- Garbiketa zerbitzua burutzeko enpresa kontratatatuak


Ordenantza honetan ezarritakoa bete behar dute hiritarrek, eta gauza bera egingo dute Garbiketa Publikoaren Zerbitzua burutzeko kontratatatu diren enpresek. Hauek bat etorri beharko dute indarrean dagoen kontratuarekin eta Udalak, hala baderitzo, ematen ditzakeen jarraibideekin.

3. Artikulua.- Ezarpen analogoa

1. Ordenantza honek arautzen ez dituen kasuei, baina euren ezaugarri edo zirkunstantziak ordenantza honen ezarpen-esparrukoak baldin badira, analogiaz, antzeko kasuen arau berak ezarriko zaizkie. Nolanahi ere, ez dira aplikatuko eskubideak murrizten dituzten arauak eta zigorak ezartzen dituztenak.
2. Udaleko zerbitzuek, interesatuekin egon eta gero, Ordenantza hau aplikatzerako orduan izan daitezkeen zalantzak argituko dituzte.

4. Artikulua.- Arauak betetzea

1. Durangoko pertsona fisiko eta juridikoak eta bisitariak ezinbestez bete behar dute Ordenantza honetan ezartzen dena, eta gauza bera Alkateak edo garbiketa zerbitzuko zinegotzi ordezkariak edozein unetan agindu ditzakeen xedapen osagarriei dagokienez.
2. Udal Agintaritzak edozein unetan eskatu dezake Ordenantza honetan ezartzen dena berehala betetzea, eta arau-haustea egin duenari okerra zuzendu dezala eskatuko dio, dagokion zigorra ezartzearen kaltetan izan gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Alkateak, Udal zerbitzuen proposamenari ekinez eta Ordenantza honetan ezartzen denarekin bat etorritz, zigorra ezarri diezaieke arauak ezartzen dutena errespetatzen ez dutenei.

5. Artikulua.- Lan subsidiarioak

1. Durangoko Udalak, era subsidiarioan, pertsona fisiko edo juridikoei zuzenean egitea dagozkien garbiketa-lanak egin ditzake eta, Ordenantza Fiskalen arabera, zerbitzuen kostua ordainaraziko die, izan daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.
2. Aurreko atalaren baldintza berdinetan, Udalak, era subsidiarioan, elementuen eta higiezinaren kanpoaldearen mantenu, konponketa eta garbiketa-lanak egin ditzake eta, halaber, bertan utzitako hondakinak batu, erretiratu, garraiatu eta desagerrarazi, eta gauza bera Ordenantza hau ez betetzearen ondorioz egindako guztiari dagokionez.

II. KAPITULUA.- GARBIKETA PUBLIKOA


I. ATALA.-ERABILERA KOMUNAREN ONDORIOZ EGITEN DEN GARBIKETA PUBLIKOA

6. Artikulua.- Bide publikoa

Garbiketari dagokionez, honakoa hartuko litzateke bide publikotzat: herritarrentzat diren erabilera publikodun kaleak, etorbideak, espaloiak, bulebarrak, ibilbideak, plazak, parkeak, lorategia duten guneak, bide-tunelak, eta gainontzeko ondasunak. Era berean, Durangoko uri historikoaren herri-jabegokoak diren karkabak ere hartuko dira bide publikotzat.

7. Artikulua.- Hondakinak biltzea

1. Debekatuta dago bide publikoan edonolako hondakin solido edo hondakin likido uztea, betiere hiri-hondakin solidoen bilketaren ezaugarriekin bat ez badatoz.
2. Bolumen txikiko hiri-hondakin solidoak, hala nola paperak, zigarro-mozkinak, bildukiak, azalak, eta abar, horretarako jarrita dauden paperontzietara bota behar dira.
3. Erabiltzaileek ez dituzte paperontziak mugituko, itzuliko edo lekutik aterako, ez eta desitxuratu edota hondatu dezaketen zerbait egin.
4. Bolumen handiko hondakin-materialak, edo tamaina txikikoak baina kantitate handian, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera bilduko dira eta erretiratuko, edo bestela, bilketa zerbitzuen arabera. Hondakin-materialen ezaugarriak direla-eta Udal Zerbitzuei ezinezkoa bazaie bilketa egitea, hondakinon jabe diren partikularrek bilduko dituzte, eta horretarako Udal Zerbitzuak emango dituen jarraibideak hartuko dira kontuan.
5. Debekatuta dago puruak, zigarroak, zigarro-mozkinak edo piztuta dauden bestelako materialak zakarrontzietara botatzea. Itzali ondoren botako dira zakarrontzira.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

6. Aldi berean debekatuta dago ibilgailuetatik edonolako hondakinak botatzea bide publikora, bai ibilgailua martxan dagoenean bai geldirik dagoenean ere.
7. Debekatuta dago ordenantza honetan zehazten den ordutegitik at, edo Alkateak eman ditzakeen aginduetatik at (honako ordenantza honetan xedatutakoa alda dezakeena) bide publikoan arroparik eta alfonbrarik astintzea, eta balkoietatik, leihoetatik edo terrazetatik ere ezingo da astindu. Edonola izanda ere, lan horiek egiteko orduan, ez da kalterik eragingo pertsonengan, animaliangan edo gauzetan.
8. Debekatuta dago eraikinen kanpoaldean dauden landareak ureztatzea, betiere, ureztatzearen ondorioz bide publikora edo bestelako elementuetara isurketarik egiten bada edo zipriztinik eragiten. Ureztatzea ordenantza honetan ezarritako ordutegiaren barruan egingo da, eta kontu handia izango da oztoporik eta kalterik ez eragiteko.
9. Debekatuta dago bide publikoan txistua botatzea eta premia fisiologikoak asetzea.
10. Debekatuta dago erre kara edozein hondakin solido edo likido botatzea.
11. Debekatuta dago, eraikinen edo establezimenduen leiho, terraza, balkoi, kanpo-irekidura, eta abarretik bide publikora edonolako hondakinak botatzea, baita poltsak edo bestelako ontziak botatzea ere.
12. Debekatuta dago bide publikoa zikindu dezakeen edozer egitea, bereziki ibilgailuak konpontzea eta garbitzea, garbiketako urak isurtzea, eta uriko hondakin solidoak manipulatzeko edo hartzea.
13. Establezimendu, kiosko, postu edo jan-edanak saltzen dituzten makinak titularrek, baldin eta euren jardura dela-eta zikinkeria eragiten badute, behar dituzten paperontziak jarriko dituzte euren kontura eta euren kargura. Paperontzi-eredua udaleko zerbitzukoekin batera aukeratuko dute. Paperontzi hauetako hondakinak dagokion udal zerbitzuak bilduko ditu.
14. Erabilpen publikorako den urbanizazio publiko edo pribatu etako obretan jarriko den paperontzi-eredua Udaleko zerbitzuekin batera aukeratuko da.


II. ATALA.- OBRETAKO LANEN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN SORTZEN DEN ZIKINKERIA

8. Artikulua.- Arau orokorra

1. Bide publikoa zikindu dezakeen edozein jardueraren titularrek, berdin delarik jardura non egiten den eta kasu bakoitzari dagokion baimenen edo lizentzien kaltetan izan gabe, bide publikoa garbi edukitzeko neurriak hartu beharko dituzte eta, halaber, zikintzen dutena garbitu egin beharko dute, eta sortzen diren hondakin-materialak jasoko dituzte.
2. Udal Agintaritzak arduradunari eskatu ahal dio dagozkion garbiketa-lanak egin ditzala.

9. Artikulua.- Bide publikoan eragina duten obrak eta lanak

1. Zikinkeria prebenitzeko, bide publikoan eragina duten lanak edo obrak burutzen dituztenek, bide-segurtasunerako arauak errespetatzeaz gain, bide publikoa babesteko betebeharra dute; eta horretarako, eraisketen, lurren eta obran soberan geratzen diren gainontzeko materialen inguruan elementu egokiak jarri behar dituzte, hartara aipatutako materialak lanek eragiten duten zonatik at zabaltzea eta isurtzea saihesteko eta pertsonen edo gauzei kalteak eragitea saihesteko.
2. Obraren garraiorako erabiltzen diren ibilgailuek bide publikoa zikintzen badute, ibilgailu horien gorpilak eta bide publikoa zikindu ditzaketen ibilgailuaren bestelako atalak garbitzeko sistema bat instalatu beharko da.
3. Bereziki, bide publikoan egiten diren zanga, kanalizazio eta abarren inguruko zonak garbiak egongo dira beti, eta bertan ez da hondakin-materialik utziko.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. Bide publikoko obren kasuan, bide segurtasuneko neurriez gain, hesiak eta babeserako elementuak jarri beharko dira eta, baita materialen zamaketa-lanetarako hodiak eta erauzketa-produktuak ere. Guztiek, bide publikoko zikinkeria eragozteko baldintzak bete beharko dituzte, eta gauza bera pertsona edo gauzei kalterik ez eragiteko.
5. Eraikuntza-lanetan erabiltzen diren ibilgailuek bete egin beharko dituzte obretako lurren isurketa eta garraioari buruz ezarrita dauden preskripzioak.

10. Artikulua.- Pertsona arduraduna

Obrako kontratista izango da zaharberritze, konpontze edo erauzte lanen ondorioz ukituriko bide publikoa garbi edukitzearen arduraduna.

11. Artikulua.- Hondakinak bide publikoan uztea


1. Debekatuta dago bide publikoan edozein hondakin-material uztea, edo bide publikoko elementuren batean hondakin-materialak isurtzea.
2. Hondakinak Udalak baimendutako eduki-ontzietan utziko dira. Bide publikoko kontainerrek jartzerako orduan dagokion Ordenantzan ezarritakoa hartuko da kontuan.
3. Obretan kontainerrak erabiliko dira ezinbestez, obretako hondakinak biltzeko espazio publikoa erabili behar den kasuan. Kontainerren neurriak kokatuko diren bide publikoen neurrietara egokituko dira, hartara, bide publikoen funtzionaltasunari dagokionez arazo larririk ez eragiteko.
4. Obretan erabiltzen diren kontainerrak bide publikotik kenduko dira honako ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera, eta edonola izanda ere, lanak amaitu eta datozen hogeita lau orduetan kendu beharko dira. Hogeita lau orduko epea gainditu ondoren, bide publikoan utzitako materialak udal-jabegokoak izatera pasatuko dira, eta materialen arduradunak ezin izango dio Udalari kalte-ordainik eskatu izandako galerengatik; gainera, hori guztia Udalak eskainitako zerbitzuari dagokion zerga ordaindu beharko du, baita ezarri daitezkeen zigorrak ere.

12. Artikulua.- Garbitzeko betebeharrak

1. Bide publikoa zikindu dezaketen ibilgailuen zamaketa-lanak eta obra, biltegi eta antzekoetarako sartu-irtenak amaitu ondoren, lan horien pertsonal arduradunek eta, era subsidiarioan, establezimenduetako titularrek eta, azken finean, ibilgailuaren jabeak edo gidariak, bide publikoa garbituko dute eta isuritako materialak erretiratuko, ordenantza honetan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
2. Aurreko azpiatalean aipatu diren pertsona guztiak izango dira ordenantza honetan aipatutako kontzeptuak urratu izanaren erantzule, baita horren ondorioz izan daitezkeen kalteen erantzuleak ere.

13. Artikulua.- Hormigoia garraiatzea

1. Debekatuta dago hormigoia garraiatzea hormigoia deskargatzeko ahoa irekita badago. Hormigoia deskargatzeko ahoan gailu bat jarriko da bide publikora hormigoirik isuri ez dadin.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. Debekatuta dago hormigoi-makinak bide publikoan garbitzea.
3. Aipatu ditugun azpiatalak betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta bide publikora isuritako hormigoia garbitu beharko dute, dagozkien zigorraren kaltetan izan gabe.

III. ATALA.-HAINBAT JARDUERAREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN ERAGINDAKO ZIKINKERIA

14. Artikulua.- Hondakin-materialak manipulatzeari eta aukeratzea

Debekatuta dago udal-antolamenduak ezarritako sistematik at dauden pertsonen bide publikoan utzitako hondakin-materialak manipulatzeari eta aukeratzea.

15. Artikulua.- Hondakinak uztea

Debekatuta dago bide publikoan dauden zakarrontzi eta edukiontzietan utzitako elementuak arakatzea, miatzea eta elementuak ateratzea.

16. Artikulua.- Establezimendu komertzialak garbitzea

Erakusleihoak, dendak, salmenta-guneak, establezimendu komertzialak eta antzekoak partikularrek garbitzen dituztenean, ordenantza honetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta bide publikoa ez zikintzeko moduan egingo da. Jarduera komertzialaren titularra izango da aipatutako guztiaren arduraduna.


17. Artikulua.- Bide publikoak garbi mantentzea

Bide publikoan debekatuta dago honako ekintza hauek burutzea:

1. Bide, orube eta saneamendu-sareetan hondakin-materialak hustea, isurtzea eta uztea.
2. Aipatutako lekuetan ur zikina isurtzea, saneamendu-sarean izan ezik.
3. Industria-hondakin likidoak, solidoak edo solidifika daitezkeenak isurtzea, baita saneamendu-sarean ere.
4. Hildako animaliak abandonatzea.
5. Animaliak garbitzea.
6. Ibilgailuak garbitzea eta konpontzea.
7. Zikinkeria sortzen duen edozein egintza burutzea edo bide publikoaren garbitasunaren aurka doan edozer egitea.

18. Artikulua.- Altzariak eta tresnak bertan behera uztea

1. Debekatuta dago bide publikoan altzari eta tresna partikularrak abandonatzea Udalak jarritako egun eta orduetatik kanpo, bilketa zerbitzu bereziaren zain daudenak izan ezik.
Aurreko atalean esandakoaz gain, Garbigunean ere utzi ahal dira astegunetan.
2. Udal-zerbitzuen lana da bide publikoan utzitako edozein objektu edo material biltzea, aldezturik jakinarazi gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Udal-zerbitzuek biltzen dituzten materialak Udal Agintaritzak zehaztuko dituen lekuetara eramango dira, bertan gordetzeko edo desagerrarazteko.
4. Material horien guztien biltegiatzea edo tratamendua Udal Agintaritzak aurreikusitakoaren arabera egingo da, eta udal-agintaritzak zehazten ez dituen kasuetan, indarrean dagoen legeria ezarriko da.
5. Material horiek guztiak bildu, garraiatu eta gordetzearen ondorioz sortzen diren gastuak materialen jabeen edo hondakin-sortzaileen kontura izango dira, eta horretarako dagokion administrazio-prozedurari jarraituko zaio.

IV. ATALA.- HIGIEZINEN KANPOKO ELEMENTUAK ETA ZATIAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA

19. Artikulua.- Kontserbatzeko eta garbitzeko betebeharra

Higiezinaren jabeek, edo horien ordezkariak, higiezinak behar bezala mantendu behar dituzte, segurtasun, osasungarritasun, garbitasun eta apaindura publikoari dagokienez.


20. Artikulua.- Kontserbatzeko eta garbitzeko betebeharraren ondorioz sortutako betekizunak

1. Eraikinen jabeen komunitateak edo finka, etxebizitza eta establezimenduen jabeek fatxadak garbi eduki behar dituzte, baita atarien zenbakien errotuluak, ageriko mehelinak, sarrerak eta sartzeko eskailerak ere, eta orokorrean, bide publikotik ikus daitezkeen higiezinaren zati guztiak.
2. Xede horrekin, jabeen ardura da mantenua, garbiketa eta itzokua egitea, apaingarri publikoak hala eskatzen duenean edo Udal Agintaritzak beharrezkotzat jotzen duenean. Horretarako, aldez aurretik, eskumeneko udal-zerbitzuek txosten bat bidaliko dute.
3. Aurreko azpiatalak betetzen ez badira, eta audientzia-izapidea egin ondoren, Udalak arduradunei eskatuko die zehazten den eperako behar diren lanak edo eginbeharrekoak egiteko.
4. Eginbeharrekoak betetzen ez badira, eta egoeraren arabera gomendagarria denean, edo interes orokorreko hobekuntzak lortzen direnean, Udalak honako artikulua honetan aipatzen diren mantentze-lanak eta garbiketa-lanak egin ditzake eta lan horien kostua jabeek ordaindu beharko dute, jarri daitezkeen zigorraren kaltetan izan gabe.

V. ATALA.-JABEGO PRIBATUKO URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA

21. Artikulua.- Erabilera pribatiboa duten urbanizazioak garbitzea

1. Jabego eta erabilera pribatuko urbanizazioetako espaloi, igarobide, plaza, eta bestelako instalazio eta elementuen garbiketaren kostua jabeek ordainduko dute.
2. Aldi berean, jabeen betebeharra izango da etxadietako barruko patioak, orube partikularrak, galeria komertzialak eta antzekoak garbitzea.
3. Udalak aurreko azpiataletan aipatu diren elementu guztiak garbi daudela kontrolatuko du, eta elementu horien arduradunei horiek garbitzeko eskatu ahal die, udal-zerbitzuek emandako instrukzioen arabera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

22. Artikulua.- Orubeak eta lursailak

1. Hiri-ingurunean dauden orube eta lursailen jabeen ardura izango da orube eta lursailetan zaborrik, hondakinik eta materia organikorik ez egotea; gainera, osasungarritasunari, higieneari, segurtasunari eta apaindura publikoari dagokienez, baldintza egokietan daudela ziurtatu behar dute.
2. Aurreko preskripzioak orubeetako arratoiak hiltzea eta desinfekzio-lanak egitea biltzen du.
3. Eraikin gabeko orubeek segurtasun-baldintzak betetzen dituzten 2 metroko altuera duen hesi batez inguratuak behar dute egon.
4. Udalak hesirik ez jartzea baimendu dezake, baina betiere, orubeak aldi baterako aisialdirako, gizarte-ongizaterako edo interes publikoko jardueretarako erabiltzen badira.

23. Artikulua.- Udalaren esku-hartzea

1. Jabeak ez daudenean, eta interes publikoko arrazoiak direla-eta lursailen osasun-egoera ona ez denean, Udalak kreditatutako pertsonala lursailera sartu ahalko da sarrerako atetik, baimen judiziala lortu eta gero.
2. Udal-zerbitzuek honako kostuak egotziko dizkiete jabeek: higiezin elementuen eta kanpoko zatien mantentze, konpontze eta garbiketa-lanen kostuak, bertan behera utzitako hondakin-materialen karga, bilketa, garraio eta desagerraraztearen ondorioz sortutako gastuak, hasierako egoerara itzularaztetik sortutakoak eta, halaber, araua ez betetzeagatik eta hondakinak bertan behera uzteagatik jarriko den zigorraren kostua.


24. Artikulua.- Erabilera publikoa areagotzea planeamendu urbanistikoaren arabera

1. Gune urbanizatuaren edo hiri-planeamenduak eragindako guneen kasuan, baldin eta horien jabeek erabilera publikorako utzi badituzte, Udalak, interesdunei entzun ondoren, aurreko artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen diren ala ez begitatu ditzake, osorik zein partzialki.
2. Aurreko azpiatalari dagokionez, Eskumeneko Udal Agintaritzak, bere eginbeharra betez, hartuko du erabakia hiritarraren interesaren arabera.

VI. ATALA.-BIDE PUBLIKOAN ANIMALIAK EGOTEAK GARBITASUNEAN DUEN ERAGINA

25. Artikulua.- Animaliak edukitzea

1. Animaliek pertsonengan zein gauzetan kalteak eragiten badituzte edo bide publikoa zikintzen badute, erantzukizuna animalion jabeena izango da.
2. Jabea ez badago, ekintza gertatzen den unean animaliarekin dagoen pertsona izango da erantzulea.
3. Animalia batek bide publikoa zikintzen badu, udaltzainek animalia jabea edo une horretan animaliarekin dagoen pertsonari haxe eskatu diezaioke:
 - a) Eragindako kaltea konpondu dezala.
 - b) Animalia berarekin izan dezala udal erakundeei entregatu baino lehen.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

26. Artikulua.- Animaliak daramatzatenen egin beharrekoak


1. Ezinbesteko higie-ne neurri modura, bide publikoan txakurrak edo beste era bateko animaliak daramatenak derrigortuta daude animalio- gorotzik (edo txizarik) egin ez ditzaten oinezkoak dabil-tzan edozelako bide publikotan.
2. Bide publikoan diren bitartean, animalio- k, Udalak horretarako baimendutako tokietan egingo dituzte euren gorotzak.
3. Baimendutako toki horiek ez baleude, edo urrutiegi egongo balira, animalio- k bideetako zintarri ondoan edo burdin hesirik ez duten zuhaitz-txorkoetan egin ditzakete gorotzok.
4. Animalia daramanak, gutxienez, bi poltsa iragazgaitz eramango ditu animaliak bide publikoan egin ditzakeen gorotzak erretiratzeko, eta dagokion udal agintaritzari erakutsiko dizkio hala eskatzen badio.
5. Bide publikoan gorotz hondarrik geratuko balitz, animalia daramanak hondarrok batu eta erretiratu beharko ditu, eta zikindurik geratu den bide publikoa ere garbi utziko du.
6. Animalia daramanak ondorengo formulak erabili ditzake animalia- ri dagokionez:
 - a) Gorotzak modu higieniko egokian erretiratu, zabor-bilketa poltsak erabiliz.
 - b) Gorotzak poltsa iragazgaitzetan, zaborrontzietan eta udaleko zerbitzuek jarritako bestelako edukiontzietan sartu, behar bezala itxita.

27. Artikulua.- Ekipamendu bereziak

1. Udalaren ardura da etxeko animalien gorotzak uzteko ekipamendu bereziak jartzea. Horretarako egokitu diren lekuetan seinaleak jarri- ko ditu eta edukiontzi egokiak instalatuko, baita horiek behar bezala erabiltzeko prebentzio- rako eta informatzeko seinaleak ere.
2. Aipatutako neurriak ezarri bitartean, lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituko zaio. Animalia daramanak edo jabeak, aurreko azpiatalean xedatutakoaren arabera, eta animalia- ri dagokionez, jarraian aipatzen diren bi formulak izango ditu aukeran:
 - a) Animaliak egindako gorotzak modu higienikoan gordetzea, eta horretarako HHSak biltzeko poltsa bat erabili daiteke.
 - b) Gorotzak poltsa iragazkaitz batean sartzeari, poltsa behar bezala ixtea eta, ondoren, zakarrontzi batean edo udal-zerbitzuek jarritako bestelako lekuren batean sartzeari.

28. Artikulua.- Animalien parte-hartzea eskatzen duten ospakizunak

1. Animalien parte-hartzea eskatzen duten jai tradizio- nalak eta bestelako ekintza publikoak bide publikoan ospatzeko, eta animalien lehiaketak, erakusketak eta antzekoak bide publikoan antolatze- ko, alde- z aurretik udal-baimena lortu behar da. Udal-baimena lortzeko, zergak ordaindu beharko dira edo fidantza ordaindu beharko da, hartara ospakizuna dela- eta eragin daitezkeen kalteei edo zikinkeria- ri erantzuteko.
2. Zerbitzuko menpeko langileek jasoko dituzte animalien gorotzak eta ospakizuna antolatu den zona garbi utziko dute. Udalak, lan horien ondorioz izandako gastuak fidantza- tik kenduko ditu edo ordainaraziko ditu, eta horretarako administrazio- prozedurari ekingo dio. Eragindako pertso- nei audientzia izateko eskubidea ziurtatuko zaie.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

VII. ATALA.– HIRITARREK, ELURTE KASUETAN, BIDE PUBLIKOA GARBITZEKO EGIN BEHARREKOA

29. Artikulua.- Elurteak direnean

1. Elurte baten aurrean, eraikinen jabeek, negozioen titularrek, administrazio-titularrek (eraikin publikoen kasuan), orubeen jabeek eta horien ordezkariak, orubeen arduradunek, jarraian adierazten diren preskripzioak bete behar dituzte.
2. Lursail edo higiezinetakoen enplegatuek, edo enplegaturik ez diren lursail edo higiezinak jabeen komunitateak, eta edonola izanda ere, eraikin publikoen eta edozein motatako eraikinen garbiketaren arduradunak diren pertsonak, euren fatxadaren pareko espaloitik elurra edo izotza garbitzeko betebeharra dute, hartara oinezkoentzako espazio nahikoa uzteko.
3. Elurra edo izotza espaloian utziko dira, zintarriaren alboan, baina ez bidean, eta jarraian aipatzen diren oharrak hartuko dira kontuan:
 - a) Ez dira aparkatuta dauden ibilgailuen gainean utziko.
 - b) Ez ingo da oztopatu ura irristagailuetatik pasatzea. Ibilgailuen sarbidea eta zirkulazioa ere ez dira oztopatuko.
 - c) Hurbilen dagoen estolderiaren erregistro-tapa libre behar da eduki.
 - d) Hori guztia, hiritar bezala bilketarako eta garbiketarako udal-zerbitzutik eman daitezkeen jarraibideak errespetatzeko eta betetzeko dagoen betebeharrari dagokionez.

30. Artikulua.- Debekatuta dago elurra bide publikora botatzea

Debekatuta dago terraza, balkoi, estalki eta eraikinen gainontzeko zatietan pilatutako elurra bide publikora botatzea, Eskumeneko Udala Agintaritzak aurkakoa esaten duen kasuetan izan ezik.

VIII. ATALA.–ORDUTEGIAK

31. Artikulua.- Garbiketako jardueraren ordutegia

1. Arropa eta alfonbrak astintzeko ordutegia eta landareak ureztatzeko, aurreko artikuluetan esandakoaren arabera, gaueko 22:00etatik goizeko 10:00etara da, betiere Alkateak, bizilagunei jakinarazi ondoren, egin ditzakeen aldaketen kaltetan izan gabe.
2. Erakuslehoi, denda, salmenta-gune eta bestelako garbiketaren oinezkoen kalterik eragin gabe egingo da.
3. Establezimendu publikoetako edo ostalaritzako terraza, mahaitxo, eta gainontzeko elementuak establezimendua itxi eta hortik ordubetera beharko da egin. Honez gain, garbitasunari eta higieinari dagozkien baldintzak une oro bete beharko dira.

III. KAPITULUA.– URIAREN GARBIKETA, ERABILERA KOMUN BEREZIARI, PRIBATIBOARI ETA KALEKO MANIFESTAZIOEI DAGOKIENEZ

I. ATALA.–BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA


32. Artikulua.- Ezarpen-esparruaren hedapena

Lehenengo artikuluan ezarritakoaren arabera, Ordenantza honetan udalerria garbi egoteko kontuan hartu beharreko arauak biltzen dira, honako alderdi hauei dagokienez:

1. Udalaren jabetza publikoko ondasunen erabilera komuna, berezia eta pribatiboa.
2. Bide publikoan egiten diren jardueren publikoen ondorioz eta publizitate-jardueren jakin batzuen ondorioz udalerrian sor daitezkeen zikinkeria prebenitzea.

33. Artikulua.- Bide publikoaren erabilerak

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Erabilera komun bereziaren eta pribatiboaren ondorioz bide publikoan eragindako zikinkeria titularren erantzukizuna izango da.
2. Jendaurreko salmenta egiten duten establezimenduetako titularrek, finkoak ala ez, hala nola tabernak, kafetegiak, kioskoak, terrazak, salmenta-guneak eta antzekoak, instalazioak eta instalazioen eraginpean geratzen den hiri-espazioa baldintza egokietan eduki behar dute garbitasunari dagokionez.
3. Aldi berean, beraien betebeharra da establezimenduaren inguruan egindako salmenten ondorioz bide publikoan utzitako hondakinak garbitzea. Aipatutako garbiketa egiteko, gehienez ere ordubeteko epea dago, establezimendua edo salmenta-gunea ixten denetik hasita. Nolanahi ere, uneoro, baldintza egokietan beharko dute egon garbitasunari eta higieneari dagokionez.
4. Garbiketa horren ondorioz sortzen diren hondakinak udal-zerbitzuak garbitu behar ditu, eta ordenantza honetan azaldutakoaren arabera aurkeztu beharko dira.
5. Aipatutakoa betetzen ez bada, udal-zerbitzuak hondakinak bildu eta garraiatuko ditu, interesdunaren kontura, izan daitezkeen zigorrak alde batera utzita, eta dagokion administrazio-prozedurari jarraituz.
6. Aurreko azpiatalean aipatutako titularrei dagokionez, titular horien establezimenduetako kontsumoaren ondorioz sortutako hondakinak gordetzeko ontzi homologatuak jartzea eskatu ahal die Udalak, eta gainera, aipatutako elementuak garbitzea eta mantentzea establezimenduaren titularraren ardura izango da.


34. Artikulua.- Garbitzeko betebeharra, ekintza publikoen antolamendu pribatuari dagokionez

1. Jabego publikokoak diren espazioetan ekintza publiko baten antolatzaile pribatuak dira aipatutako ekintzaren ondorioz sortzen den zikinkeria erantzuleak.
2. Uria garbi egon dadin, ekintza publikoen antolatzaile pribatuek Udalari jakinarazi behar diote ekintza publikoa non antolatuko den, zein ibilbide beteko duen eta zein ordutegi izango duen. Udalak fidantza jartzea eskatu ahal die ekintza egin izanaren ondorioz sor daitezkeen zikinkeria garbitzeko izan daitezkeen aparteko lanak ordaintzeko. Ekintza publikorako erabili den espazioa baldintza egokietan geratzen bada, fidantza itzuli egingo da. Kontrakoa gertatzen bada, aparteko lanen kostua fidantzatik kobratuko da.
3. Ekintza publiko baten zuzeneko ondorio bezala bide publikoaren edo bertako higigarrien narriadura eraginez gero, horren erantzuleak ekintza publikoaren antolatzaileak edo sustatzaileak izango dira. Gainera, egindako kalteak konpontzeko gastuak ordaindu beharko dituzte, eta gainera zigorra jaso dezakete.

35. Artikulua.- Definizioak

Ordenantza honen arabera, honako sailkapen honi jarraituko zaio:

1. ERROTULUAK, pinturaz edo bestelako materialez egindako iragarki finkoak edo mugikorrak dira; iraupen luzekoak.
2. KARTELAK, paperean edo bestelako material ahul batean egindako iragarkiak dira (inprimakiak, marrazkiak edo idazkiak). Formatu murriztua badute eta eskuz banatzen badira, horma-irudiak PANFLETOtzat joko dira.
3. PANKARTAK, tamaina handiko iragarkiak dira. Batzuetan bide publikoan, gehienez ere, hamabost egunez jartzen direnak ospakizun publiko bat iragartzeko.
4. PINTADAK, bide publikoan eskuz egindako inskripzioak dira. Eraikinen paretetan edo beste edozein egitura-elementutan edo higigarri urbanotan egiten direnak.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

5. BANDERATXOAK, tamaina txikiko publizitate-iragarkiak dira, elementu komun batetik dingilizka daudenak, eta gehienetan hiri-eraikinen edo higiezin urbanoen zatietan lotzen direnak.
6. PEGATINAK, alde batean material itsaskorra duten inprimakiak dira, beste elementu solido batean zuzenean itsats daitezkeenak.
7. FOILETOAK, paper-zatiak edo antzeko materialaren zatiak dira, bide publikoan hiritarren artean banatzen direnak edo edonolako adierazpen publiko zein pribaturen inguruan banatzen direnak.

36. Artikulua.- Udal-baimena

Espazio publikoen garbitasuna eta apaindura zaintzeko, Udalaren baimena beharko da Titulu honetan arautzen diren kartelak, pankartak eta banderatxoak jartzeko eta foiletoak banatzeko. Udal-baimenik izan ezean, jardueraren erantzuleak zigorrak ordaindu beharko dituzte.


37. Artikulua.- Publizitate-elementuei dagozkien betekizunak

1. Lehen definitu diren publizitate-elementuen baimena lortzearekin batera, eskatzaileak zenbait betekizun beharko ditu bete, hala nola zikindutako bide publikoaren espazioak garbitzea eta, baimendutako epearen barruan, erabilitako publizitate elementu guztiak eta horien osagaiak biltzea.
2. Udalak fidantza jartzea eskatu diezaieke bide publikoan publizitate-elementuak jarri edo banatu nahi dituztenei. Fidantzaren zenbatekoa jartzeko kontuan hartuko da zikinkeria eragin ditzaketen hondakinak edo elementuak garbitzeak edo erretiratzeak suposatuz dezakeen kostua eta, halaber, udal-baimenak urratzetik atera daitezkeenak, betiere jarri daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.

II. ATALA.-BIDE PUBLIKOAN KARTELAK, PANKARTAK, BANDERATXOAK EDO PEGATINAK JARTZEA

38. Artikulua.- Debekua

1. Debekatuta dago kartelak edo pegatinak jartzea Udalak horretarako baimentzen dituen lekuetatik at.
2. Debekatuta dago Titulu honetan araututako publizitatea jartzea hiri-antolamenduaren arabera historiko/artistikotzat sailkatutako edo inbentariatutako eraikinetan edo Euskal Kultur Ondarearen barruan sailkatutako eraikinetan eta antzekoetan. Salbuespena izango dira eraikinean bertan garatuko diren jarduerak aipatzen dituzten pankartak edo errotuluak, edo eraikinen kontserbazio, erreforma edo birgaitze-lanei buruzkoak direnak.
3. Debekatuta dago baimendutako lekuetan dauden kartel edo iragarkiak urratzea, zikintzea edo kentzea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

39. Artikulua.- Baimenen baldintzak publizitatea jartzeko orduan

Udalak baimendutako lekuetan publizitatea jartzeko orduan, honako baldintza hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Horma-irudiaren publizitatea azaleraren ehuneko hoge batio gutxiago izatea.
- b) Udal-baimenik gabe ezingo da publizitatea jarri. Arau-hausleek zigorra jaso dezakete.

40. Artikulua.- Salbuespenak

1. Bide publikoetan pankartak eta banderatzokak jartzea honako kasu hauetan bakarrik dago baimenduta:
 - a) Hauteskunde politikoen garaian.
 - b) Herriko eta auzotako festetan.
 - c) Eskumeneko Udal Agintaritzak hala baimentzen duenean.
2. Udal Agintaritzak arautuko du, kasu bakoitzean, Udalak xede horrekin bideratzen dituen espazioak zein baldintzapetan erabili, baita horretarako baimena eskatzeko egin beharreko izapideak ere.
3. Pankarta eta banderatzoketan baimen-eskaeran zehaztutako xedea bakarrik azalduko da, bestelako publizitaterik jarri gabe.
4. Debekatuta dago zuhaitzetan pankartak eta banderatzokak jartzea.
5. Honako datu hauek azaldu beharko dira pankartak edo banderatzokak jartzeko baimen-eskaeran:
 - a) Pankarten edo banderatzoken neurriak.
 - b) Pankartak edo banderatzokak non jarriko diren.
 - c) Bertan egongo diren denbora.
 - d) Pankarten edo banderatzoken arduradunak berauek kentzeko konpromisoa hartuko du eta gauza bera bide publikoan edo bertako egitura-elementuetan eragindako kalteak konpontzeari dagokionez.


41. Artikulua.- Betekizunak

Bide publikoko egitura-elementuetara lotutako pankartek edo banderatzokak, jarraian azaltzen diren baldintzak bete behar dituzte:

1. Faroletan lotuta daudenak: Farolaren puntu bakar batean lotuko dira. Debekatuta dago pankartak edo banderatzokak farola artistikoetan jartzea. Pankarta edo banderatzoka lotzeko elementua ez da metalezkoa izango.
2. Pankarten kasuan, azalera zulatatu egingo da, airearen eragina arintzeko moduan, eta edonola izanda ere, zulatutako azalera ez da pankartaren azaleraren %25a baino gutxiago izango.
3. Edozein kasutan, pankarta jartzeko gutxienezko altuera, punturik baxuenetik neurtuta, 5 metrokoa izango da bidea zeharkatzen duen kasuetan, eta 3 metrokoa espaloien, pasealekuen eta bestelako oinezkoentzako guneen kasuan.

42. Artikulua.- Erretiratzea

1. Pankartak eta banderatzokak jarri dituztenek erretiratu beharko dituzte baimendutako epea amaitu eta berehala. Horrela gertatzen ez bada, udal-zerbitzuek erretiratuko dituzte, eta lan horren kostua pankarten edo banderatzoken erantzuleek ordainduko dute, ezar daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. Bide publikoan pankartak eta banderatxoak baimenik gabe jartzen badira, Udal Agintaritzak zigorrak jarriko dizkie arduradunei.

III. ATALA.-PINTADAK

43. Artikulua.- Debekua

1. Debekatuta dago bide publikoan edonolako pintadarik egitea, hau da, debekatuta dago pintadak egitea bide publikoko egitura-elementuetan, bideetan, espaloietan, higiezin urbanoetan, baita horma, monumentu eta uriko edozein kanpo-elementutan ere.
2. Aurreko azpiatalari dagokionez salbuespena dira:
 - a) Horma-irudiak margotzea orubeen paneletan, obra-itxiduretan eta behin-behineko elementuetan.
 - b) Edozein unetan, eta dagokion udal-zerbitzuen bitartez, Udalak pinturak ezabatzea edo desagerraraztea erabaki dezake, pintadak egiteko baimena eduki ala ez.

IV. ATALA.- FOILETOAK EDO ANTZEKOAK BARREIATZEA

44. Artikulua.- Publizitate idatzia


1. Debekatuta dago bide publikoan edonolako foileto, testu inprimatu edo antzeko materiala barreiatzea eta botatzea. Salbuespena izango da "eskuz esku" egiten den banaketa.
2. Dagokion udal-zerbitzuek garbituko dute foiletoak banatzearen edo barreiatzen ondorioz zikindutako uriko espazioa, eta foiletoen arduradunek ordainduko dituzte eskaintako aparteko zerbitzuen kostuak, dagozkien zigorren kaltetan izan gabe.

IV. KAPITULUA.- HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEA

I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA ZERBITZUAK ESKAINTZEKO ESPARRUA

45. Artikulua.- Bilketa-zerbitzua

1. Hiritarrek sortutako hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuei dagokienez, Titulu honen xedea da Udalak zein baldintzaren arabera eskainiko duen aipatutako zerbitzua eta erabiltzaileak nola erabiliko duen arautzea.
2. Aipatutako zerbitzuei dagokienez, Durango uriko biztanle guztiak hartuko dira erabiltzaileatzat, eta indarrean dauden xedapenen eta ordenantza honetan zehaztutakoaren arabera erabiliko dituzte.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

46. Artikulua.- Hiri-hondakin solidoen definizioa

1. Hiri-hondakinak edo udal-hondakinak honako hauek dira: etxebizitza partikularretan sortutako hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutako hondakinak, baita arriskutsutzat sailkatu ez direnak baina izaera edo konposaketa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin asimilagarriak direnak.
2. Horrez gain, hiri-hondakin berezizat hartuko dira jarraian aipatzen diren hauek:
 - a) Bide publiko, berdegune, aisialdirako zona eta hondartzak garbitzetik ateratzen diren hondakinak.
 - b) Etxeko animalia hilak, baita bertan behera utzitako altzariak, tresnak eta ibilgailuak ere.
 - c) Eraikuntzako lan txikietatik eta etxeko konponketetatik sortzen diren hondakinak eta obra-hondakinak.
 - d) Sukaldeko eta jatetxeetako hondakinak, zainketa sanitarioetatik zuzenean deribatzen ez direnak (zerbitzu medikoak, albaitari-zerbitzuak edo ikerketa-zerbitzuak).


47. Artikulua.- Hiri-hondakintzat hartzen ez direnak

Ondorengo hauek ez dira hiri-hondakin edo udal-hondakintzat hartuko:

1. Gaika bildutakoak (udal-hondakinak eta dendetatik, industrietatik eta erakundeetatik datozen hondakin asimilagarriak):
 - a) Pinturak, erretxina-tinduak eta kolak.
 - b) Disolbatzaileak.
 - c) Argazkilaritzako produktu kimikoak.
 - d) Pestizidak.
 - e) Tutu fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak.
2. Pilak eta akumuladoreak:
 - a) Berunezko bateriak.
 - b) Ni-Cd Bateriak.
 - c) Merkuriozko pila lehorrak.
 - d) Pilen elektrolitoa eta akumuladoreak.
3. Erabilitako olioak (jateko olioak izan ezik), besteak beste, olio hidraulikoak eta balazten likidoa, baldin eta azken hau erabili izan bada.
4. Osasun-zerbitzuetako, albaitari-zerbitzuetako edo horrekin lotutako ikerketa-zerbitzuetako hondakinak (multzo honetatik at geratuko dira sukaldeko eta jatetxeetako hondakinak, zainketa sanitarioetik zuzenean deribatzen ez direnak).
 - a) Amaetxe, diagnostiko, giza gaixotasunen tratamendu edo prebentziorako zerbitzuen hondakinak. Hondakin hauek biltzeko eta desagerrarazteko beharrezkoak dira baldintza bereziak betetzea, hartara kutsadura saihesteko.
 - b) Animalien gaixotasunen inguruko ikerketaren, tratamenduaren eta prebentzioaren ondorioz sortzen diren hondakinak. Hondakin horiek biltzeko eta desagerrarazteko neurriak hartu behar dira infekzioak prebenitzeko.

48. Artikulua.- Salbuespenak

Udaleko bilketa zerbitzuak ez ditu ondorengo materialak batuko:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Fabrika, lantegi, biltegi eta industria-instalazioetan sortzen diren hondakinak, zaborrak eta erraustsak.
2. Aipatu ditugun guztiez gain, baldintza berezietan Eskumeneko Udal Agintaritzak multzo honetan sailkatzen dituen guztiak.

49. Artikulua.- Zaborrak biltzeko baimendutako pertsonak

Zaborrak biltzeko gaitasuna, Udalak baimendutako zerbitzuak edo zerbitzuek bakarrik dute. Beraz, debekatuta dago beste edozeinek, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, zaborrak biltzea.

50. Artikulua.- Bilketa-zerbitzua

1. Zaborrak biltzeko, tratatzeko eta desagerrarazteko zerbitzuak ondorengo jarduketak biltzen ditu:
 - a) Hiri-hondakin arruntak: eguneroko jardueraren ondorioz sortutako hondakinak: batez ere etxeko zaborrak.
 - b) Hiri-hondakin bereziak: noizean behin azaltzen diren hiri-hondakinak (ezohikoak): animalia hilak, altzariak eta tresnak, bertan behera utzitako ibilgailuak eta antzekoak.
2. Nahiz eta Udalaren ardura ez izan zenbait hondakin tratatzea eta desagerraraztea, noizbehinka bada ere, eskaini dezake Udalak zerbitzu hori, nahiz eta horretarako erabiltzaileak berak eskatu behar dion Udalari aipatutako zerbitzua eskaini dezala.

51. Artikulua.- Zerbitzua eskaintzearen truke ordaindu beharreko tasa

Udalak, urtero, bide publikoa garbitzeko eta hiri-hondakin solidoak biltzeko eskaintzen diren zerbitzuen tasa zehaztuko du. Erabiltzaileek aipatutako tasa ordaindu beharko dute, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

52. Artikulua.- Bilketa-zerbitzua hondakin bakoitzera egokitzea

Bilketa zerbitzu bakoitzari bere hondakina dagokio eta horrela egiten ez duenak zigorra jasoko du. Eta zigorra jasoko dute, halaber, udaleko zerbitzuek jarritako edukiontzietan beste era bateko hondakinak sartzen dituztenak.


53. Artikulua.- Hondakinak sailkatzeko orduan izan daitezkeen zalantzak

Lehen ezarritakoari dagokionez, baldin eta zalantzaren bat balego, Udaleko Ingurumen Zerbitzuek erabakiko dute hondakinak onartu ala ez, baita dagokien bilketa-mota ere.

II. ATALA.-ETXEKO ETA DENDETAKO ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZUA

54. Artikulua.- Udaleko bilketa-zerbitzua

Udalak edo eskuordetzen duen erakundeek zehaztuko dute udalerrian zein hondakin-mota bilduko dituzten horretarako jarrita dauden zerbitzuek.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

55. Artikulua.- Zerbitzu batetik bestera hondakinak biltzeko ardura igortzea

Ezinezkoa da bilketa-zerbitzu bati dagozkion hondakinak beste zerbitzu bati igortzea.

56. Artikulua.- Etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua

Etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua udalerrak edo eskuordetzen duen erakundeak ezinbestez eskaini beharreko zerbitzua da. Etxeko bilketa zerbitzuak honakoak biltzen ditu:

- a) Zaborra utzi edo pilatu den lekutik bilketa-ibilgailuetara eramatea.
- b) Zaborrak aipatutako ibilgailuetan biltzea.
- c) Hala balegokio, zaborra gordetzeko elementuak, hustu ondoren, berriro ere bere jatorrizko lekuan uztea.
- d) Lan horien ondorioz bide publikoan geratzen diren zaborrak garbitzea eta baztertzea.
- e) Zaborrak Zabortegira edo Tratamendu Plantara garraiatzea eta bertan uztea.

57. Artikulua.- Zabor-bilketa zerbitzua erabiltzeko eta jasotzeko beharra

1. Zabor-bilketa zerbitzuaren interes sanitarioa dela-eta, ezinbestekoa da herritar guztiek zerbitzu hau erabiltzea eta hartzea. Beraz, kale batean zerbitzua ematearen ondorioz, besterik gabe, alta emango zaie jabetzen erkidego guztiei eta bertan diren etxebizitzak eta lokalen jabeak.
2. Erabiltzaileek etxeko hondakinak plastikozko poltsa normalizatueta sartzeko betebeharra dute, Udalak xede horrekin eskaini ditzakeenak alegia.
3. Poltsak hermetikoki itxiko dira, isurketarik gerta ez dadin. Isurketarik izanez gero zabor-poltsak behar bezala itxita ez daudelako, isurketa eragin duen erabiltzailea izango da eragindako zikinkeria erantzulea.
4. Errealitate teknologikoak eta ekonomikoak ahalbidetzen duen unetik aurrera, plastikozko poltsen ordez materia biodegradagarriko poltsak jarriko dira.


58. Artikulua.- Hondakin zatituak

1. Etxeko errautsak edo Ostalaritzako hondakinak botatzeko orduan, edukiontzia ez erregarriak eta ontzi normalizatuak erabiliko dira.
2. Dendetatik hondakin solidoak biltzearen ondorioz eragindako hondakinak ontzi ez itzulgarri eta gogorretan jaso daitezke, edo ontzi itzulgarri normalizatueta.
3. Aipatutako ontziek, edukia barne, ezingo dute 50 kg baino gehiagoko pisua eduki.
4. Udalak zaborrak botatzeko beste mota bateko edukiontzia edo ontzia erabiltzea erabakitzen badu, bere unean, ordenantza honetarako Arau Osagarriak emango ditu bilketa-zerbitzuak ahalik eta baldintza egokienetan burutu daitezen.

59. Artikulua.- Hondakinak pilatzea

1. Erabiltzaileek kontu handia izan behar dute isurketarik gerta ez dadin zabor-bilketa zerbitzuari zaborra ematerakoan. Zaborrak behar bezala ez gordetzeagatik isurketarik gertatuz gero, isurketa eragin duen erabiltzailea izango da bide publikoan eragindako zikinkeria erantzulea.
2. Debekatuta dago zaborrak eta hondakinak pakete, kaxa, homologatu gabeko poltsa eta antzekoetan gordetzea eta bilketa-zerbitzuari ematea.
3. Debekatuta dago zaborrak bide publikoko zakarrontzietan uztea baldin eta, zaborraren bolumenaren ondorioz, zaborrak sartzeko zuloa oztopatzen bada.

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. Debekatuta dago kale garbiketarako jarrita dauden eduki-ontziak erabiltzea beste erabateko hondakinak bertan sartzeko.
5. Debekatuta dago desegin daitezkeen edo usain txarra eragin dezaketen produktuak sartzea obretako kontainerretan.
6. Debekatuta dago hondakin likidoak dituzten edo likido bihurtu daitezkeen etxeetako edo komertzioetako zaborrak libratzea.
7. Zenbait hondakin-moten gaikako bilketa orokorra egitea erabakitzen den unetik aurrera (papera eta kartoia, beira, plastikoak, eta abar) debekatuta dago aipatutako material guztiak bereizi gabe jasotzea.
8. Debekatuta dago zaborraren artean ontzi itzulgarriak gordetzea. Kasu honetarako gaikako bilketa-sistema dago.
9. Kontainerreko tapa estalita behar du egon beti.
10. Kontainerra ezingo da lekuz aldatu udalaren baimenik gabe.
11. Debekatuta dago kontainerren ondoan sua egitea edota kontainer barruan sutan dauden materialak sartzea.

60. Artikulua.- Hondakinak uzteko debekua

1. Debekatuta dago hondakinak bertan behera uztea. Erabiltzaileek ezinbestez utzi behar dituzte hondakinak Udalak adierazitako leku eta orduetan.
2. Arau-haustea egin duten erabiltzaileek derrigortuta daude bertan behera utzitako zaborrak erretiratzera eta zikindutako ingurua garbitzera, izan daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.

61. Artikulua.- Udalerriko zabor-bilketa guneak

1. Bilketa-zerbitzuak zaborrak bildu ahal ditzan, erabiltzaileek Udalak adierazitako lekuetan utziko dituzte zaborrok.
2. Udalak, aldi baterako edo epe jarrai baterako, normalean aipatzen diren hondakinak ez direnak uzteko eta pilatzeko guneak zehatz ditzake. Gune horiek udal-zerbitzuek behar bezala seinaleztatu dituzte.
3. Komertzioetarako bilketa-gune bat jarriko balitz, zerbitzu hau darabilten establezimenduek beren lokaletan gordeko dituzte hondakinok zerbitzua eskainiko den unera arte.


62. Artikulua.- Hiri Hondakin Solidoen zaborrontzi itzulgarriak

1. Etxeetako edo komertzioetako bilketan erabiltzen diren zaborrontzi itzulgarriak, behin hustuz gero, bide publikotik erretiratu beharko dituzte euren jabeek.
2. Bilketa zerbitzuek jatorrizko puntuetara bueltatuko dituzte komertzioetako bilketan erabiltzen diren zaborrontzi itzulgarriak.

63. Artikulua.- Hondakinak manipulatzeko debekua

Debekatuta dago zaborrak manipulatzea, ezinbestean ez bada.

1. Ontzi normalizatuak ez dauden lekuetan, hondakinak zabor-bilketaren ardura duten langileek jasoko dituzte finkaren edo establezimenduaren atean bertan.
2. Edukiontzia normalizatuak dauden lekuetan, herritarrek bertan sartuko dituzte hondakinak, eta zabor-bilketa kamioiko langileek edukiontziak kamioian hustu eta bere lekuan utziko dituzte berriro. Beraz, zabor-bilketako langileez gain inork ezin ditu hondakinok manipulatzea ez finka barruan ezta jabego publiko edo pribatuaren ere.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

64. Artikulua.- Hondakinentzako edukiontziak jartzea bide publikoan

1. Hondakinentzako edukiontziak jartzea bide publikoan, bide-ertzeko espaloian edo adierazitako lekuetan, hala nola, poltsak edukiontzietan edo biltegi publikoetan uztea, jarritako dagoen ordutegiaren barruan egin beharko da, eta inolaz ere ez zerbitzua ematen ez den egunetan.
2. Barne-patiorako sarrera duten eraikinetan edo zenbait kale esturen kasuan, baldin eta zerbitzua eskaintzen duen ibilgailuak bertara sartzerik ez badu, ontziak, behar bezala multzokatuko dira eta zerbitzuaren kamioiak egingo duten ibilbidetik ahalik eta gertuen jarriko.
3. Era berean, edukiontzi berreskuragarriak bide publikotik erretiratu egin beharko dira horretara jarritako ordutegiaren barruan.

65. Artikulua.- Edukiontziak nola erabili

1. Hiri-hondakin solidoak biltzeko edukiontzien erabilerari dagokionez jarraian aipatzen dena hartuko da kontuan:
 - a) Udalak erabakiko du leku bakoitzean zein edukiontzi-mota erabili, zenbat jarriko diren eta non kokatuko diren.
 - b) Edukiontziak behar bezala kontserbatu ahal izateko, Udalak hondakinak kargatzeko eta deskargatzeko gune bereziak jarriko ditu.
 - c) Edukiontziak behar bezala kontserbatzeko, dagokion zerbitzuak, aldiro-aldiro, garbitu egingo ditu edukiontziok, eta higiene arloko baldintzak ere beteko ditu.
 - d) Erabiltzaile eta hiritarren betebeharra da edukiontziak behar bezala zaintzea higieneari eta segurtasunari dagokienez. Eta kalteren bat eragingo balute edukiontziok gaizki, arduragabe edo axolagabe erabili dituztelako, erantzukizuna erabiltzaileena izango litzateke. Betebehar bera ezartzen da babes-hesi, pibote eta barrei dagokienez.
 - e) Debekatuta dago edukiontziak lekuz aldatzea, baita ere edukiontzien barruan egoera arriskutsuak eragin ditzaketen edo dagokion zerbitzuko langileei lana oztopatuko dien inolako manipulaziorik egitea.
 - f) Debekatuta dago edukiontzia edo bilketa-guneak hondatuko dituen edozer egitea.
 - g) Aipatutako betebeharrak eta erantzukizunak kontuan hartzen ez badira, dagozkion kargak egotzi ahal dira, jarri daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

66. Artikulua.- Zabor-bilketarako ontzi itzulgarriak erretiratzea

1. Etxeko zaborra biltzeko erabiltzen diren ontzi itzulgarriak, behin hustu ondoren, bide publikotik erretiratuko dituzte euren jabeek.
2. Aurreko azpiatalean aipatu dugun ontzi-mota bera, dendetan hondakinen bilketan erabiltzen dena, jatorrizko lekuan utziko dute berriro bilketa-zerbitzuko langileek.
3. Ontzi normalizatuaren mantenua eta garbiketa finkako biztanleek egin beharko dituzte etxebizitza bezala erabiltzen diren eraikinen kasuan, eta eraikin publikoak edo establezimendu komertzialak direnean, horien jabeek egin beharko dituzte. Edonola izanda ere, lan hori betetzeko pertsona bat izendatu beharko dute.

67. Artikulua.- Hondakin solidoen ekoizleak

1. Udalak eskatu dezake, bere zerbitzua zelan antolatuta dagoen kontuan hartuta, hondakin solidoen ekoizleek hondakinok udal-ekipamenduetan hustea, hondakin solidoak tratatzeko eta desagerrarazteko zerbitzua baldintza onenetan izan dadin pertsonen eta ingurumenaren segurtasunari dagokienez.
2. Hondakin solidoak udal-ekipamenduetan uzteko orduan ordenantza honetan eta gainontzeko arauetan ezarritakoa betetzen ez bada, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango hondakinek eragin ditzaketen kalteetan.
3. Hondakinak tratatzeko edo desagerrarazteko udal-ekipamenduek edo Udalak kontzertatutako ekipamenduek, hondakinaren osaera edo aurkezpena dela-eta, jaso gabe utzi ditzakete hondakin solidoei dagokienez ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten hondakin-materialak.
4. Hondakinak tratatzeko eta desagerrarazteko udal-instalazioak erabiltzeko orduan, kasu bakoitzean ezartzen diren barne-erregimenaren arauen arabera jokatu da.

68. Artikulua.- Saneamendu-sarean eragina duten tratamendu-metodoen aurkako debekua

1. Debekatuta dago etxeetan edo bestelako eraikinetan zabor-birringailuak erabiltzea baldin eta saneamendu-sarearekin zuzenean konektatuta badaude.
2. Debekatuta dago hondakin solidoak eta etxeko olioak zein bestelakoak zuzenean saneamendu-sarera botatzea.


69. Artikulua.- Saneamendu-sare publikoa libratzea gainezka egiten duenean

1. Saneamendu-sare publikoko hondakinek gainezka egiten badute udaleko zerbitzuek egingo diete aurre albait arinen eta doan.
2. Abisuren bat jasoko balitz saneamendu-sareak gainezka egin duelako edo bestelako arazoren bat dagoelako eta, behin errebisatuz gero, problemak instalazio pribatuenak balira, dagokion tasa ezarriko da eskainitako zerbitzuagatik. Nolanahi ere, Udaleko zerbitzuak ez du saneamendua libratzeko obligaziorik.

70. Artikulua.- Udalaren baimena hondakinen tratamenduari dagokionez

1. Hondakin solidoen (etxeko hondakinak, ospitaletakoak, industriakoak, eta abar) errauskailu bat instalatzeko, aldez aurretik, Udalaren baimena beharko da izan.
2. Debekatuta dago, zaborren dentsitatea areagotzeko instalazioetan (birringailuak, trinkogailuak, eta abar) tratatutako zaborrak bilketa-zerbitzuetan hustea, baldin eta aurretik udal-baimenik lortu ez bada.

71. Artikulua.- Zabor-bilketako langileen legitimazioa



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Hiri-hondakin solidoak biltzeko ardura duten langileek bakarrik bilduko dituzte hondakinok. Norbaitek beste edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen badizkio, hondakinok eragin daitezkeen kalteen erantzulea izango da, izan daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe.
2. HHSak, baimenik ez bada behintzat, sekula ez zaizkie emango kale-garriketa zerbitzuaren arduradunei. Kale-garriketa zerbitzuko langileek ez dute HHSen ardura izango, euren lanaren barruan sartzen direnenak izan ezik.

72. Artikulua.- Atez ateko zabor-bilketa zerbitzua

1. Udalerriko HHSen ekoizle edo edukitzaile handiak bilketa-zerbitzu orokorretik salbuetsita geratuko dira, baldin eta hondakinok biltzea oso zaila bada HHSen egoera, osaketa edo kantitatea kontuan izanda, eta ekoizleak hondakinak aginte eskudunak egokitutako lekutara eramane ahal baditu.
2. Kasu horietan, "atez ateko" udalaren bilketa-zerbitzua antolatu daiteke, edo bestela, HHSen ekoizleak edo edukitzaileak eta HHSak euren kontura husten dituzten pertsonak, HHS horien bolumena ahalik eta gehien murrizteko neurri egokiak hartzeko betebeharra dute, hartara, HHS horien garraioa eta azken tratamendua ordenantza honen eta indarrean dauden arauen arabera egingo da, eta segurtasunari eta higienerari buruzko betekizun guztiak errespetatuko dira.
3. Artikulu honetan adierazitako salbuespenaren ondorioz izan daitezkeen kalte eta galeren erantzukizuna HHSen ekoizlearena edo edukitzailearena izango da. Udalak ikuskapena egiteko ahalmena du, eta HHSak ebakutzeko orduan aldaketak egitea eskatu dezake. HHSak tratatzeari dagozkion kostua ere kobratu ahal da.

73. Artikulua.- HHSen kantitate garrantzitsuak


1. HHSen ekoizle edo edukitzaile batek, noizean behin, HHS horiek ohikoa baino kantitate handiagoak ekoiztuko balitu, eta ondorioz bilketa-sistema kaltetuko balu, aldi berean gainontzeko erabiltzaileak ere kaltetuz, kasu horretan, HHSen ekoizleak edo edukitzaileak ezin izango ditu gainontzeko hondakinekin batera atera. Hala ere, bilketa-zerbitzuei HHS horiek bildu ditzan eskatu ahal dio, eta horren truke ordaindu egin beharko du.
2. HHSen ekoizle edo edukitzaile handiek (azoka, galeria komertzialak, eta abar), euren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Udalak ebatzitzakoa bete beharko dute hondakinak ebakutzeko moduari eta hondakinei eman beharreko tratamenduari dagokienez.
3. Aurreko puntuan esandako guztiaren kaltetan izan gabe, HHSen kantitate handia sortzen duten industria-jardueren kasuan, eta hondakinok zerbitzu publikoak biltzea eta garraiatzea nahi badute, HHS horiek euren ekoizpenaren ondorioz zuzenean sortzen ez direla ziurtatu beharra dute.

III. ATALA.-ZABORRENTZAKO INSTALAZIO FINKOAK ERABILTZEA

74. Artikulua.- Hondakinak biltzeko lokalak eduki beharra

1. Egunean 300 kg baino hondakin gehiago sortzen duten HHSen ekoizle edo edukitzaileak, eta hondakinok Udalak biltzen baditu, lokal bat behar dute izan hondakinok gordetzeko. Lokal horrek sarbide zuzenak izan beharko ditu kamioi zabor-biltzaileak barrura sartu ahal daitezen.
2. Aipatutako lokalak kamioi zabor-biltzaileak egiten duten bidetik gertu behar du egon. Azken baten, Udalak esango du lokalon kokapena egokia den ala ez.

75. Artikulua.- Zaborrentzako gelak eraikinetan



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Zaborrentzako gela bat dagoen eraikinetan (etxebizitzak, industriak, dendak, osasun-zentroak, eta gainontzeko establezimenduak), berau, egunero sortzen diren zaborrak jasotzeko bakarrik erabiliko da.

76. Artikulua.- Hondakinak lokaletan pilatzea

1. Lokal hauetan hondakinak pilatzeko, edukiontzi finkoak eta itxiak erabiliko dira.
2. Zaborrentzako lekua eta berauek pilatzeko elementuak baldintza egokietan eduki behar dira higieneari eta garbitasunari dagokienez.
3. Hondakinok edukiontzi itxietan edukiko dira, zabor-bilketa kamioien ezaugarriekin bat datorrena. Lokala, edukiontziak eta trinkogailuak establezimenduaren kargura egongo dira.


77. Artikulua.- Zaborrentzako gelen neurriak

Zaborrentzako gelek honako neurriak izango dituzte:

1. Etxebizitzetan, 0,7 m² hiru etxebizitzako. Nolanahi ere, gutxienez, 4 m² beharko dute izan eta 2,20 metroko altuera.
2. Eraikin komertzial eta industrietan, gutxienez 4 m². Egunero sortzen diren zaborrak biltzeko tamaina nahikoa edukiko du.
3. Azoketan, gutxienez 0,7 m² postu bakoitzeko. Nolanahi ere, gutxienez, 6 m² beharko du izan.
4. Elikadura-galeriatan, 0,5 m² postu bakoitzeko.
5. Zentro komertzialetan, gutxienez 4 m², egunero sortzen diren zaborrak biltzeko tamaina nahikoa edukiko duen.
6. Osasun-zentroetan, gutxienez 4 m² eta aireztatze behartua.

78. Artikulua.- Zaborrentzako gelen hornidura

1. HHSak ebakutzeko erabiltzen den lokala, kanpoko inguruaren kota berean egongo da. Nahikoa zabala izango da eta erraz zaintzekoa. Horrez gain, honakoak beharko ditu:
 - a) Garbiketako urak husteko hustubide sifoiduna; estolderia-sare orokorrera konektatuta gantzak eta hondakin solidoak bereizten dituzten arketen bitartez.
 - b) Ura elikatze sistema, lokal osoa modu errazean eta zuzenean garbitzea ahalbidetuko duena.
 - c) Lokala argiztatzeko argigune nahikoak. Lokalera sartzeko ate bakoitzean etengailuak jarriko dira, baita kanpoaldean ere.
 - d) Hustubiderako lurzoru aldapadunak, iragazgaitzak, lauak eta junturarik gabekoak; estolderia-sare orokorrera konektatuak, eta gantzak bereizteko arketa dutenak.
 - e) Lokaleko horma guztiak sabairaino alikatatu behar dira. Sabaiak material iragazgaitzez egingo dira.
 - f) Lurzoruarekiko parametro bertikalen elkargunea kurban egingo da eta ez angelu zuzenean.
 - g) Aireztapen naturala edo behartua. Aireztatze hau ezingo da inolaz ere komunetako edo bainugeletako aireztatze-tximinien bitartez egin.
 - h) Hondakinentzako gelaren sarreran ate mugikorrek beharko dira egon, gutxienez, 1,2 metroko zabalerakoak.
 - i) Hondakinen bolumenari dagokionez, beharrak asetzeko beste ontzi-kopuru beharko da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- j) Zabor-gelaren atearen alboan su-itxalgailu bat jarriko da.
- 2. HHSak gordetzeko espazioa eta horiek pilatzeko edukiontzia, baldintza egokietan gorde behar dira higieneari eta garbitasunari dagokienez.
- 3. Hori guztia, une oro, bilketa egokia egiteko Udaletik adierazten dena bete beharrenez kaltetan izan gabe.

79. Artikulua.- Hondakinentzako lekuak elikadura-establezimenduetan

- 1. Azoka eta elikadura-galerietan, HHSak ebakutzeko erabiliko den lokalak, aurreko artikuluan aipatu ditugun ezaugarriak betetzeaz gain, honako baldintza hauek ere bete beharko ditu:
 - a. Azokako postu edo banku bakoitzeko, gutxienez, 0,7 m²ko azalera eta elikadura-galerietako postu edo banku bakoitzeko, gutxienez, 0,5 m².
 - b. Karga eta deskarga egiten den lekuan kokatuta beharko du egon.
 - c. Gutxienez lau metroko altuera izango du, kamioi kolektoreak mugitzeko inolako arazorik izan ez dezan karga eta deskarga egiten den lekutik.
 - d. Ateak: bide publikorako sarrera zuzena behar dute, hiru metroko zabalerarekin.
- 2. Azoka nagusien ezaugarriak direla-eta, bertan sortutako hondakinak garraiatzeko eta desagerrarazteko udal-zerbitzuekin koordinatu beharko da.

80. Artikulua.- Zaborrentzako gelak osasun-zentro edo antzekoetan

Osasun-zentroetan edo antzekoetan, lehen aipatu ditugun betekizunez gain, zabor-gelek aireztatze behartua izango dute.


IV. ATALA.-HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZUAREN ERREGIMENA ETA ORDUTEGIA

81. Artikulua.- Bilketa egiteko ordutegia

- 1. Etxeko zaborrak egunero bilduko dira.
- 2. Herritarrentzako onuragarria izango dela pentsatzen denean, Udalak aldatu egin dezake zabor-bilketaren maiztasuna.
- 3. Urtero, egutegi bat argitaratuko da eta bertan adieraziko dira zaborra biltzeko lanegunak eta bilketaren ordutegia.
- 4. Udalak, nahi duenean eta interes publikoko arrazoiak direla medio, zabor-bilketa zerbitzuaren programa aldatu egin dezake.
- 5. Zerbitzuaren ordutegian, zerbitzua eskaintzeko moduan edo maiztasunean aldaketarik eginez gero, udal-zerbitzuek aldaketa guztiak denbora nahikoarekin jakinaraziko dituzte, Eskumeneko Udal Agintaritzak larrialdietan eman ditzakeen xedapenen kasuan izan ezik.
- 6. Larrialditzat jotzen diren kasuetan, zaborra behar bezala jaso ezin denean eta aldeztu aurretik aldaketak jakinaraztea ezinezkoa denean, erabiltzaileek ez dute hondakinik kaleratuko zerbitzua konpondu bitartean edo Udalak jarraibide egokiak eman bitartean. Jakinarazpena hondakinak utzi ondoren egiten bada, erabiltzaile bakoitzak bere ontzia berreskuratu beharko du eta berarekin izan beharko du ahalik eta zerbitzuak behar bezala funtzionatzen hasi arte edo Udalak jarraibide egokiak eman arte.
- 7. Gauza bera gertatuko da edukiontzia beteta dagoenean.
- 8. Edozelan ere, tasak ez dira murriztuko ezta itzuliko ere kalteren bat gertatuz gero.

82. Artikulua.- Bilketa-zerbitzuaren xehetasunak

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


1. Etxeko zabor-bilketa zerbitzuaren xehetasunak Udalak finkatuko ditu ordenantza honen arabera.
2. Dendetako zabor-bilketa, ahal den neurrian, denden lan-ordutegiaren barruan egingo da.
3. Baimenduta dago goizeko zortziak arte bide publikoan zaborrak jasotzeko edukiontzi eta balde normalizatuak uztea. Ontziok hustu ondoren horien arduradunek erretiratu egin beharko dituzte bide publikotik.
4. Udalak, udal-zerbitzuen proposamenari jarraiki, zirkunstantziek hala agintzen badute, egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ditzake ordutegian.
5. Bilketa-zerbitzuaren programazioaren antolamendua dela-eta bilketa-zerbitzuan aldaketak egin badira, herritarrek jakinaren gainean jarri beharko dira.
6. Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, eta udal-agintaritzaren jarraibideen arabera, dendetako hondakinak bide publikoan uzteko ordutegiak bat etorri beharko du bilketa-zerbitzuko ordutegiarekin.
7. Aipatutako ordutegia bete ezean, edo HHSak ordenantza honetan xedatutakoaren arabera ebakutzen ez badira, unean ezarriko diren isunak ordaindu beharko dira.

V. KAPITULUA.– HONDAKIN-MATERIALAK APROBETXATZEA ETA GAIKA BILTZEA

I. ATALA.–BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA

83. Artikulua.- Gaikako bilketa

1. Ordenantza honetan zehaztutakoa betetzeko, gaikako bilketatzat joko da, hiri-hondakin solidoen osagai bat edo gehiago gaika biltzea edo uztea.
2. Gaikako bilketak udal-zerbitzuek edo hirugarren pertsonak egin ditzakete, eta horretarako, aldezturik, udalak baimena emango die gaikako bilketa egiteko.
3. Udal-zerbitzuei dagokienez, gaikako bilketa egiteko programa zehatzak finkatzen diren kasuetan, herritarrek aipatutako programetan laguntzeko jarrera azalduko dute udal-jarraibideen arabera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

84. Artikulua.- Herritarrentzako informazioa

Udal-zerbitzuak gaikako bilketa-zerbitzuaren baldintzak eta modalitateak zeintzuk diren jakinaraziko die herritarrei.

II. ATALA.-GAIKAKO BILKETA-ZERBITZUA

85. Artikulua.- Gaikako bilketaren hainbat sail

Udalak, lege-mailan finkatu diren baldintzak betetzeko, hondakinak berreskuratze eta birziklatzeko zikloa progresiboki osatuko du, berak bakarrik edo beste zenbait erakunderekin batera, eta xede horrekin, jarraian aipatzen diren gaien gaikako bilketa-zerbitzua antolatuko du:

- a) Altzariak, tresnak eta tresna zaharrak,
- b) Beirak,
- c) Papera eta kartoia,
- d) Arropa, zapiak eta ehunak orokorrean,
- e) Pilak eta etxeetan izaten diren bestelako produktu toxikoak edo arriskutsuak.
- f) Plastikoak,
- g) Materia organikoaren hondarrak,
- h) Metalak,
- i) Ontziak
- j) Berreskura daitezkeen eta birzikla daitezkeen beste edozein elementu edo lehengai.


86. Artikulua.- Ontziak

1. Ordenantza honen ondorioetarako, ontzitzat hartuko da edozein eratako materialarekin egindako produktua baldin eta merkantziak gordetzeko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko erabiltzen bada, oinarritzko materietatik hasi eta artikulu amaituetaraino, fabrikazio, banaketa eta kontsumo-kateko edozein fasetan. Era berean, ontzitzat hartuko dira helburu horretarako erabiltzen diren artikulu ez itzulgarri guztiak. Kontzeptu honen barruan sartzen dira saltzeko ontziak edo ontzi primarioak, ontzi kolektiboak edo sekundarioak eta garraiorako ontziak edo tertziarioak.
2. Ontzi kontzeptuaren barruan sartzen dira, halaber, kontsumitzaileek edo azken erabiltzaileek dendetan merkantzia garraiatzeko erabiltzen dituzten erabilera bakarreko poltsak eta xede berarekin erabiltzen diren artikulu ez itzulgarriak, hala nola, erretiluak, platerak, edalontziak, mahai-tresnak eta beste edozein produktu ez itzulgarri, bereziki ostalaritzan eta jatetxeetan produktua hornitzeko eta kontsumoa edo erabilera errazteko edo ahalbidetzeko erabiltzen direnak.
3. Ontzi industrial edo komertzialtzat hartuko dira industrian, dendetan, zerbitzuetan eta nekazaritza eta abeltzaintza-ustiapenetan bakarrik erabiltzen eta kontsumitzen direnak, hots, etxe partikularretan normalean erabiltzen eta kontsumitzen ez direnak.

87. Artikulua.- Ontzitzat hartzen ez direnak

Honakoak ez dira ontzitzat hartuko:

1. Etxeko hondakinak biltzeko erabiltzen diren poltsak. Ez da kontzeptu honen barruan sartzen eta, ondorioz, ez dira ontzi bezala sailkatzen kontsumitzaileek edo azken erabiltzaileek dendetan merkantzia garraiatzeko erabiltzen dituzten erabilera bakarreko poltsak, nahiz eta gero hondakinak biltzeko erabili.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


2. Erosketak egiteko erabiltzen diren otzarak.
3. Bildukiak, hau da: produktu bat biltzeko erabilitako materialak, produktua merkatura ateratzen den unean produktuarekin ez datorrena baina kontsumitzaileari ematen zaiona erosketa egiten duenean.
4. Erosketa-otzaren eta bildukien multzotik at geratuko dira eta, ondorioz, ontzi bezala sailkatuko dira, kontsumitzaileak edo azken erabiltzaileak dendetan merkantzia garraiatzeko erabiltzen dituzten erabilera bakarreko poltsak.
5. Gutunazalak.
6. Diru-zorroak, paper-zorroak eta agiriak eramateko erabiltzen diren antzeko tresnak.
7. Maletak.
8. Metxeroak.
9. Infusioen poltsak, gordetzen duten produktuarekin bat eginda daudenak.
10. Luma edo boligrafoentzako ordezeko piezak.
11. Diru-zorroak eta billete-zorroak.
12. Xiringak, plasma-poltsak eta beste hainbat produktu, euren xedeagatik osasun-produktutzat hartu daitezkeenak.
13. Odol, gorozki eta gernuaren laginak hartzeko ontziak edo poltsak eta analisisetarako erabiltzen diren antzeko ontziak.
14. Botikekin batera datozen jarraibideak edo prospektuak.
15. Zinta magnetofonokoak, bideo-zintak edo informatikan erabiltzen direnak.
16. Betaurreko edo ukipen-lenteen kaxak.

88. Artikulua.- Hondakinak bereizirik gordetzea

1. Zenbait hondakin-mota (papera, kartoia, beira, plastikoak, eta abar) gaika nola bildu erabaki ondoren, debekatuta dago gaika bildu daitezkeen hondakinak bereizi gabe gordetzea.
2. Behin finkatuz gero erabilitako ontzien gaikako bilketa eta hondakinen bilketa, debekatuta dago aipatutako materialak bereizi gabe uztea.
3. Ostalaritza establezimenduek janariak prestatzeko darabilten olio bereiztu beharra dute, eta olio-bilketaren ordainagiriak erakutsiko dizkiete Udaleko agintariei hala eskatzen badiete.

89. Artikulua.- Edukiontziak

1. Gaikako bilketarako edukiontziak zerbitzu horretarako bakarrik erabiliko dira. Debekatuta dago edukiontzi horietan bestelako hondakinak uztea.
2. Udal-zerbitzuek herritarrei jakinaraziko diete zeintzuk diren gaikako bilketa-zerbitzuaren baldintzak eta modalitateak.
3. Debekatuta dago partikular batek edonolako hondakinak eta hiri-hondakin solidoak biltzea edo aprobeztatzea Udalaren baimenik ez badu. Debekatuta dago, halaber, bide publikoan utzitako hondakin-materiala, oraindik ere bilketa-zerbitzuak batu ez duena, aukeratzea, sailkatzea eta bereiztea, Udalak baimendutako kasuetan izan ezik.
4. Segurtasuna, osasungarritasuna eta higienea direla-eta, debekatuta dago edukiontzi hauetan utzitako hondakinak ateratzea.
5. Segurtasuna, osasungarritasuna eta higienea direla-eta, debekatuta dago edukiontzietatik at edo horien alboan materialik uztea, nahiz eta edukiontziak gordetzen duen material bera izan.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

6. Gaikako bilketa-sistema behar bezala burutzeko, ahal den kasuetan, hondakinak tolestu eta zatitu egingo dira.

90. Artikulua.- Hondakinen jabegoa

1. Zaborrak eta hondakinak dagokien lekuan utzi ondoren eta bilketa-zerbitzua pasa bitartean, udalaren jabegoak izango dira.
2. Gaikako bilketa egiteko, aurreko puntuan aipatu dugun zaborren eta hondakinen udal-jabegoa eraginkorra izango da hondakin-materialak bide publikoan uzten diren unetik.

91. Artikulua.- Ekimen pribatuak

1. Hondakinak baloratzeko ekimen pribatuek zein publikoek Udalaren babesa eta laguntza eskura dezakete, udal-zerbitzuen arabera udalerriri begira emaitza positiboak lortuko direla uste bada. Edozelan ere, etekina lortzeko asmoa duten ekimen pribatuek ez dira gaikako bilketatzat hartuko.
2. Udalak, bere ahalmenen arabera eta interesdunei entzun ondoren, hondakinak gaika biltzeko kanpainak sustatu ahal ditu edo dirulaguntza eman ahal die.
3. Udalak, ahal duen neurrian, gaikako bilketa aurreikusten duten hondakinak kudeatzeko sistemak bultzatuko ditu, mesedegarriak direlako:
 - a. Zaborteziaren bizitza luzatzeko.
 - b. Lehengaiak aurrezteko.
 - c. Energia aurrezteko.
4. Udalak Garbigunea bultzatuko du herritarrek bertara hondakinak eraman ditzaten birziklatzeko.


VI. KAPITULUA.-HIRI-HONDAKIN SOLIDO BEREZIEN BILKETA

I. ATALA.-XEDAPEN OROKORRAK

92. Artikulua.- Hiri-hondakin solido bereziak

Ordenantza honen ondorioetarako, hiri-hondakin solido bereziak dira:

1. Bide publikoa, berdeguneak eta bestelako guneak garbitzetik bildutako hondakinak.
2. Etxeko animalia hilak.
3. Altzariak eta tresnak.
4. Ibilgailu abandonatuak.



93. Artikulua.- Borondatezko izaera

1. Erabiltzaileak nahi badu erabiliko ditu hondakin bereziak biltzeko ezartzen diren zerbitzuak.
2. Bilketa zerbitzu honek hauexek biltzen ditu:
 - a. Hondakinak bilketa-ibilgailuetara eramatea eta bertan hustea.
 - b. Edukiontzia hustu ondoren bere lekuan uztea.
 - c. Hondakin bereziak desgite edo birziklatze guneetara eramatea eta deskargatzea.
3. Hiri-hondakin solido bereziak biltzeko zerbitzuen ardura da aipatutako hondakinak erretiratzea.
4. Erabiltzaileak udalaren bilketa-zerbitzua erabiltzea aukeratzen badu, ordenantza honek ezarritako baldintzen arabera entregatu beharko ditu Sail honetan aipatzen diren hondakinak.

94. Artikulua.- Aldez aurretiko eskaera

Hondakin solido berezien bilketa-zerbitzuaren zerbitzuak eskuratzeko, aldez aurretik interesdunak eskaera egin beharko du. Bertan adieraziko du hondakin-mota eta hondakinaren bolumena, eta hala badagokio, eskumeneko udal-organismoaren baimena lortuko du, eta eskaera egin duenari jakinaraziko zaio zabor-bilketa zein ordutan eta zein egunetan egingo duen udal-zerbitzuak.

95. Artikulua.- Tasa

Edozelan ere, hondakinok ibilgailu eta edukiontzi egokietan garraiatuko dira, hondakin bakoitzaren izaeraren arabera. Zerbitzua bete ondoren, hala balegokio, dagokion tasa likidatuko da.

96. Artikulua.- Larrialdiak

Hondakinak alait arinen jaso behar balira eta eskaera tramitatzeak behar baino denbora gehiago eramango balu, eskaera Ingurumen sailean egin daiteke zuzenean. Berau idatziz aurkeztuko da eta Ingurumen saileko arduradunak erabakiko du kasua premiazkoa den ala ez, eta premiazkoa dela erabakitzen badu, udal-zerbitzuari hondakinak biltzeko agindua emango dio, eta ondoren, kudeaketa-bulegoari jakinaraziko zaio dagokion tasa likidatu dezan.


II. ATALA.- ELIKAGAIK ETA PRODUKTU HONDATUAK EDO IRAUNGIK BILTZEA ETA ANIMALIA HILAK JASOTZEA

97. Artikulua.- Beste hainbat hondakin

Elikagai eta/edo produktu iraungiak edo hondatuak kantitate handietan desagerrarazi behar dituzten establezimenduetako jabeek hondakinon berri eman behar diote Udalari eta, bide batez, ahalik eta informazio gehien helaraziko diote hondakinok behar bezala desagerrarazi ditzan.

98. Artikulua.- Animalia hilak

1. Animalia hilak desagerrarazi nahi dituzten pertsona edo erakundeek udal zerbitzua erabili dezakete. Zerbitzu honek animalia jaso, garraiatu eta desagerraraziko du, eta eskatzaileak dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.
2. Artikulu honetako 1. puntuan xedatutakoa ez zaie ezarriko abeltzaintza edo nekazaritza-ustiapenei, ez eta kirol-erabilerarako zaldiei eta aisialdirako ekipoei ere. Kasu honetan, eta aldez aurretik albaitariaren kontrola pasa ondoren, animalia hila edo animalia hilak udal-zabortegira jabearen kontura eramango dira eta bertan erraustu edo lurperatuko dira, betiere, osasun-baldintza eta ingurumen-baldintza egokiak errespetatuz. Ondoren, jabeak dagokion tasa ordaindu beharko du.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Animalia hila eliminatzen bada ere, jabeak obligazioa du animalia bera bere heriotzaren arrazoiak jakinarazteko baldin eta halaxe ezartzen baitute indarrean dauden lege xedapenak.
4. Norbaitek animalia hilen bat ikusiz gero, Udaltzaingoari jakinaraziko dio, gorpua baldintza higieniko egokietan erretiratu dezaten.
5. Hildako animalia asko lurperatzen bada, ganaduaren saneamendu-kanpainak, epizootiak edo antzeko kasuak direla-eta, 3. puntuaren ezarritakoa bete beharko da. Halaber, osasun eta ingurumen neurriak hartuko dira eta zerbitzu teknikoak ezarri dezaketena jarraituko.

99. Artikulua.- Zerbitzua eskaintzea


Animalia hilak gainera kentzeko udalerririk jarritako zerbitzuak erabiliko dira. Baina erabili ahal dira, halaber, alde aurretik albaiteko edo lehen sektoreko elkarte edo sindikatuek behar bezala baimendutako bestelako jarduketak.

100. Artikulua.- Beste zenbait betekizun animalia hilei dagokienez

1. Jabeak, edo horren ordez beste edozein pertsona interesdunak, Udaltzaingoari jakinaraziko dio. Udaltzaingoak animalia-motari edo hondakin-motari buruzko datuak hartuko ditu, baita animalia non dagoen eta zerbitzua eskatu duen pertsonaren izena eta abizenak ere.
2. Udaltzaingoak honen berri emango die Albalaitza Zerbitzuari edo Ingurumen Sailari, eta hauek ikusiko dute hilotza edo hondakina aztertzea egokitzen jotzen duten edo hori suntsitzeko neurri egokiak hartzea erabakitzen duten edo datuak hartu nahi dituzten.
3. Aurreko neurri guztiak hartu ondoren, Udaltzaingoak animalia edo hondakina erretiratzeko agindua emango dio eskumeneko udal zerbitzuari, eta baieztatu egingo du berau betetzen den edo ez. Ondoren, parte bidaliko dio dagokion bulegoari eta tasak kobratzen dituenari, hala balegokio, zerbitzuaren truke ordaindu beharreko tasa ezarri dezan.

101. Artikulua.- Debekua

1. Debekatuta dago edozein espezieko animalien hilotzak etxeko zaborrean edo edonolako lursailetan uztea, baita ibaietara, lakuetara, hustubideetara edo estolderiara botatzea ere; modu berean, debekatuta dago animaliak jabe publikokoak diren lursailetan lurperatzea edo erretzea.
2. Debekatuta dago animaliak ehorztea lurzoru publiko zein pribatuan.
3. Honako arau hau ez betetzeagatik jarriko den zigorra osasun-mailako araudian aurreikusitako erantzukizun araberakoa izango da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

III. ATALA.–ALTZARIAK ETA TRESNAK JASOTZEA

102. Artikulua.- Altzariak eta tresnak jasotzea

Etxeko altzariak edo tresnak bota nahi dituzten partikularrek (koltxoak, etxeko tresna elektrikoak, somierrak, eta antzekoak), udal-zerbitzuetara jo dezakete edo Udalak horretarako baimendutako beste edozein enpresataraz; kasu bakoitzean aldez aurretik zehaztuko da altzariak edo tresnak nola jasoko diren.

103. Artikulua.- Debekua

Debekatuta dago hondakin-mota hau bide publikoan edo orubeetan edo lursailetan uztea, bai publikoetan bai pribatuetan ere.


IV. ATALA.– BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK JASOTZEA

104. Artikulua.- Bertan behera utzitako ibilgailuak

1. Debekatuta dago erabiltzen ez diren ibilgailuak erabilera orokorreko eta Udalaren zaintza duten bide publikoetan edo guneetan abandonatzea.
2. Lehen esandakoaren ondorioetarako, ibilgailua abandonatuta dagoela ulertuko da honako baldintza hauek betetzen direnean:
 - a. Eskumeneko agintaritzak ibilgailu bat bide publikotik erretiratu eta gorde duenetik bi hilabete igaro direnean.
 - b. Leku berean aparkatuta hilabete bat baino gehiago daramanean eta, hondatuta izatearen ondorioz, ezinezkoa denean ibilgailua leku batetik bestera laguntzarik gabe mugitzea edo matrikulazio-plakarik ez duenean.
3. a) ataleko kasuetan, eta abandonu itxura izan arren matrikulazio-plaka aldean duten ibilgailuei dagokienez eta posible balitz titularra identifikatzea edozelako marka edo zeinuren bidez, titularrari jakinaraziko zaio, dagozkion epeak amaitu eta gero, 15 egun dituela ibilgailua erretiratzeko, eta hala egiten ez badu, hiri-hondakin solido bezala tratatuko da.
4. Ibilgailuaren edo bere hondakinen jabea ezezaguna balitz, jakinarazpena indarrean dagoen legediak aurreikusitakoaren arabera egingo da.
5. Ez dira ibilgailu abandonatu bezala sailkatuko, agindu judiziala duten ibilgailuek baldin eta Udalak agindu hau ezagutzen badu. Udal-agintaritzak uriko higiena zaintzeko neurriak hartu ditzake.

105. Artikulua.- Titularrari edo legezko jabeari jakinaraztea

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren ibilgailu abandonatuei dagokienez, berauen jabeai jakinaraziko zaie ibilgailua zein egoeretan dagoen, eta hamabost eguneko epea emango zaie ibilgailua bertatik kentzeko. Nolanahi ere, egoera arriskutsu, osasungarritzeko edo antolamendu publikokoak ematen badira, ibilgailua, besterik gabe, erretiratu egingo da.
2. Ibilgailua lekutik kendu eta gorde ondoren, Udalak titularrari edo legezko jabeari jakinaraziko dio.
3. Jakinarazpenean, titularrari eskatuko zaio ibilgailua Udalaren eskutan uzten ote duen esateko, eta hala bada, ibilgailua Udalaren eskuetara pasako da, edo ibilgailua eliminatzearen ardura hartuko du. Erantzunik jasotzen ez bada, lehenengo aukera ontzat eman duela ulertuko da. Jabea ezezaguna den kasuetan, jakinarazpena arau orokorren arabera egingo da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

106. Artikulua.- Ibilgailua erretiratzeko borondatezko zerbitzua

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren ibilgailu abandonatuei dagokienez eta notifikazioak egin ostean, ibilgailua gorde egingo da, gehienez ere hilabete bat. Epea hau amaitu ondoren Udalak egokien deritzona egingo du ibilgailuarekin. Eta gauza bera egingo da egoera arriskutsu, osasungarritzko edo antolamendu publikokoen ondorioz erretiratutako ibilgailuekin.
2. Aurreko atalean zehaztu den bezala, ibilgailu abandonatuen esleipena edo enkante publikoan ibilgailuak izan dezakeen balioa esleitzea Kode Zibileko 615. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.
3. Udalak ondorengo kasuetan hartuko ditu bere gain ibilgailu abandonatuen jabetza:
 - a. Jabeak hondakintzat aitortzen duenean eta ibilgailuaren jabegoa Udalaren eskuetan uzten duenean.
 - b. Udal zerbitzuen arabera, ibilgailua abandonatutzat hartu daitekeela ulertu daitekeenean eta ordenantza honetan ezarritako epe eta xedapen guztiak betetzen direnean.
4. Aurreko kasuak gertatzen direnean, jarri daitezkeen zigorren kaltetan izan gabe, ibilgailua erretiratzean eta gordetzean izandako gastuak edo bestelako udalaren esku-hartzeen ondorioz izandako gastuak ibilgailuaren jabeak ordainduko ditu, eta gastu horiek kobratzeko premiamendura jo ahal da.

V. ATALA.-LOREZAINTZAREN HONDAKINAK JASOTZEA

107. Artikulua.- Lorezaintzaren hondakinak jasotzea

1. Lorategi-guneen jabeek edo arduradunek lorezaintzaren hondakinak jaso behar dituzte. Hondakin horiek ezin dira bide publikoan utzi, eta ontziratuta gabe edo soltean badaude, poltsa edo edukiontzi egokietan sartu beharko dira inguruko estetika errespetatzeko.
2. Lorategi publikoen kasuan, diametro txikiko erretzeko moduko arrama eta antzerakoak ez dira hondakintzat hartuko, eta instalazio publiko edo sozialetan erabiltzeko berreskuratuko dira.

VII. KAPITULUA.- OBRETAKEO LURRAK ETA HONDAKINAK BILTZEA, GARRAIATZEA ETA ISURTZEA


I. ATALA.-BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA

108. Artikulua.- Xedea

1. Titulu honek hauexek arautzen ditu.
 - a. Obretako lur eta hondakin solidoak biltzea, garraiatzea, pilatzea eta isurtzea.
 - b. Bide publikoan obretarako kontainerrak jartzea obretako lurra eta hondakinak biltzeko eta garraiatzeko.
2. Titulu honetako xedapenak ez dira baliagarriak izango lur eta antzeko materialentzako baldin eta obra berriko lanak saltzeko edo hornitzeko erabiltzen direnean. Aitzitik, ordenantza honetan ezartzen diren arau guztiak aplikatuko dira bide publikoko zikinkeria prebenitzeko eta garbitzeko orduan, hau da, aipatutako materialen karga, deskarga eta garraioaren ondorioz eragiten den zikinkeria.

109. Artikulua.- Obretako lurra eta hondakinak

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Ordenantza honen ondorioetarako, ondorengoak hartuko dira obretako lur eta hondakin bezala:

1. Indusketetatik ateratako lurrak, harriak eta antzeko materialak.
2. Eraikuntza eta eraispén-lanetako hondakinak eta, orokorrean, obra handi eta txikietako soberakin guztiak.
3. Aurrekoen antzeko edozein hondakin, eta eskumeneko udal agintaritzak zehazturikoak.

110. Artikulua.- Helburuak

Udalak parte hartuko du obretako lur eta hondakinen ondorioz jarraian zehazten diren egoerak gertatu ez daitezen:

1. Aipatutako materialak kontrolik gabe edo modu desegokian isurtzea.
2. Baimendu gabeko lekuetan isurketa egitea.
3. Jabego publikoko lurrak edo ondasunak era desegokian erabiltzea.
4. Udalerriko zoladura eta gainontzeko egitura-elementuak hondatzea.
5. Bide publikoa eta udalerriko gainontzeko azalerak zikin egotea.

111. Artikulua.- Salbuespenak


Salbuetsita geratzen dira saltzeko lurrak eta materialak eta obra-hondakinak birziklatu ondoren berreskuratu diren materialak. Gauza bera amiantoak daukaten eraikuntza eta eraispéneko hondakinei dagokienez (errepide-lanetakoak barne).

112. Artikulua.- Udalaren erabakiak

Obretako lurrak eta obra-hondakinak isurtzeko orduan, Udalak espazio publiko eta pribatuen berreskurapena ahalbidetzea sustatuko du, eta gainera, isurketa non eta nola egin ere zehaztuko du.

113. Artikulua.- Debekuak

1. Obretako lurren eta hondakinen ekoizpenari eta isurketari dagokionez, debekatuta dago:
 - a. Lur publikoetan isurtzea baldin eta horretarako baimenik ez badago.
 - b. Jabego partikularreko lursailetan isurtzea, nahiz eta titularren baimena izan, baldin eta udal-zerbitzuek arriskua ikusten badute paisaiako elementuei edo ingurumenari kalteak eragiteko.
 - c. Terreno publiko zein pribatuetan egin daitezkeen betetze-lan edo antzeko lanetatik ateratako lurrak eta hondakinak erabiltzea udaleko zerbitzuen baimenik gabe.
2. Obretako lur eta hondakinentzako gordailu berezietan ezingo da usteldu edo desegin daitezkeen materialik sartu, ezta substantzia toxiko edo arriskutsuak dituztenak ere.
3. Debekatuta dago edozein obrarako hondakinak sartzea etxeko hondakinak gordetzeko erabiltzen diren ontzi normalizatuetan.
4. Debekatuta dago eraikuntza-lanetako eta/edo eraikinen birmoldaketa-lanetako edo etxe barruan egindako obretako hondakinak bide publikoan uztea 2 orduz baino gehiago.
5. Era berean, debekatuta dago bide publikoan, obrako hesi babesgarritik harantz, eraikuntza materialak biltzea 2 orduz baino gehiago.
6. Debekatuta dago obra-hondakinak uztea ibai-arroetan, lakuetan eta abere-bideetan .



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

II. ATALA.-OBRETARAKO KONTAINERRAK ERABILTZEA

114. Artikulua.- Obretako kontainerrak


1. Titulu honen ondorioetarako, "obretako kontainer" bezala ulertuko dugu ontzi metalikoa edo erretzen ez den material sendoko ontzia, nazioartean normaldutako motakoa eta neurriak dituen, bereziki diseinatu direnak eta garraiorako ibilgailu berezietan karga eta deskarga lan mekanikoak egiteko gailu bereziak dituen, eta eraikitzen ari diren egituretako edo obra publikoen edo eraikinen erauzketaren ondorioz sortutako mota guztietako materialak gordetzeko balio dutenak, edo lurrak eta obra-hondakinak jasotzeko balio dutenak. Kontainerrak ezinbestez jarriko dira 1 m³ baino hondakin gehiago sortzen dituzten obretan.
2. Salbuespena dira honako kontainer hauek: garbiketa-zerbitzukoak, etxeko zaborretako ontziak eta beira, papera edo beste edozein material berreskuratzeko ontziak.

115. Artikulua.- Kontainerrak kokatzeko baimena

1. Obretarako kontainerrak jartzeko udal-baimena lortu behar da. Udal-baimena dagokion udal-zerbitzuek luzatuko dute.
2. Obretako barrualde hesituan jartzen diren kontainerrek ez dute baimenik behar; hala ere, gainontzeko baldintzei dagokienez, ordenantza honek ezarritakoa errespetatu eta bete beharko da.
3. Obretarako kontainerrak bide publikoan jartzen badira tasak ordaindu beharko dira, eta tasa horiek dagokion ordenantza fiskalak arautuko ditu.
4. Obretarako kontainerrak dagokion baimenaren titularrek bakarrik erabili ahal izango dituzte.
5. Kontainera erretiratzerakoan, obren baimena eskuratu duen titularrak kontainera egon den bide publikoa baldintza ezin hobeetan utzi behar du garbitasunari dagokienez.

116. Artikulua.- Kontainer-mota desberdinak eta horien kokapena

1. Kontainerrak bi motakoak izan daitezke:
 - Arruntak: sekzio longitudinal trapezoidala eta parametro longitudinal bertikalak dituenak. Gehienezko neurriak honako hauek izango dira: goiko oinarrian, luzeran (5) bost metro, zabaleran (2) bi metro eta altueran metro eta erdi (1,5).
 - Bereziak: parametro bertikalak eta oinaren gehienezko neurriak, luzeran zazpi metro eta erdi (7,5) eta zabaleran bi metro (2).
2. Obra-motaren arabera, eta kontainera jarriko den bide publikoaren arabera, Udalak kontainer-eredu egokiena baimenduko du.
3. Kontainerrek identifikazio-txapa bat (matrikula) edukiko dute, metalezkoa, eta honako datu hauek azalduko dira:
 - a) Kontainerren jabearen edo enpresa arduradunaren izena edo izen soziala eta telefonoa.
 - b) Emandako udal-baimenaren arabera, behar bezala identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
4. Debekatuta dago beste era bateko publizitatea.
5. Obretarako kontainerrak gauez zein egunez ikusgarriagoak egiteko kolorez margotuko dira, eta goiko angeluetan marra distiragarri bat edukiko dute, 40 X 10 cm-koa, albo bakoitzean.
6. Kontainerrak gauez ere bide publikoan uzten diren kasuetan, arazorik gabe ikusteko banderatxo distiragarriak edo argidunak jarriko dira, bide-segurtasunerako arauetan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

7. Iluntzerakoan eta, bereziki, kaleetako argiak pizten direnean, zenbait lekutan argi gorriak piztu beharko dira kontainerren alboetan gau osoan zehar eta argi gutxi dagoen guztietan.
8. Kontainerak baldintza egokietan egongo dira garbitasunari eta kontserbazioari dagokienez, eta edozeinek ikusteko moduan.

117. Artikulua.- Bide publikoan kokatzea


1. Ahal den guztietan, kontainerak obren gune itxiaren barrualdean jarriko dira, eta ezinezkoa denean, bidean, zintarriaren alboan espaloia duten kaleetan.
2. Kontainera ezin bada obraren barrualdean jarri, aparkatzea baimenduta dagoen bideetan jarriko da; baina, beti ere, 2,70 metrotik gorako espazioa utzi beharko da norabide bakarreko bideetan eta 6 metrotik gorakoa norabide bikoetan. Aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan kontainera espaloietan jarri ahal da, bidetik gertuen dagoen tokian; baina, beti ere, oinezkoak ibiltzeko 2 metrotik gorako espazioa uzten bada.
4. Kontainerak ezingo balira jarri obra barruan, plazan, oinezkoentzako guneetan eta espaloirik gabeko kaleetan, obratik ahalik eta gertuen jarriko dira, etxebizitza eta establezimenduen eragozpenik sortu gabe, eta oinezkoen eta ibilgailuen ahalik eta kalterik gutxien eraginez. Kontainerrok goizeko 11k baino lehen erretiratu beharko dira.
5. Kontainerak jartzeko orduan honakoak hartuko dira kontuan:
 - a. Obra aurrean edo ahalik eta gertuen jartzea.
 - b. Ibilgailuen ikuspenari arazorik ez sortzeko moduan jarriko dira, batez ere bide-gurutzetan. Gainera, errespetatu egingo dira Zirkulazio Kodeak aparkamenduen gainean ezarritako distantziak.
 - c. Kontainerak ezin dira jarri oinezkoentzako pasabideetan, pasabideen aurrean eta aparkatzeko eta gelditzeko pasabideetan edo erreserbetan, aipatutako erreserbak obrarako eskatu direnean izan ezik.
 - d. Kontainerak ezin dira jarri, ez osorik ez zati bat, zerbitzu publikoen tapen gainean, sutetako hidranteetan, zuhaitz-txorkoetan, ezta baldintza arruntetan edo larrialdietan erabiliko diren hirigintzako beste edozein elementuren gainean ere.
6. Kontainera jartzerakoan, kontainerren alderik luzeena paraleloan izango da espaloiarekiko edo fatxadarekiko, bateriako aparkamendua duten zatietan izan ezik.
7. Kontainerak bidean jartzen direnean, espaloiko zintarritik 0,20 metrora jarriko dira, azaleko urek arazorik izan ez ditzaten hurbilen dagoen hustubidera iristeko. Edozelan ere, kontainerren alboan, gutxienez, trafikoa erabiltzen diren hiru kono jarriko dira, zirkulaziotik gertuen dagoen kontainerren alboan eta zehar-lerroan.

118. Artikulua.- Kontainerak estaltzeko betebeharra

1. Kontainerak bete ondoren, material egokiz egindako toldoz edo ehunez estali behar dira erabat estalita geratu daitezen eta beste batzuek etxeko zaborrak edo trasteak bertara bota ez ditzaten edota hondakinok barreiatu ez daitezen haizearen eraginez.
2. Era berean, laneko ordutegia amaitutakoan estali egin behar dira kontainerak.

119. Artikulua.- Erantzuleak

1. Udal-zerbitzuek zikindutako bidea garbi dezakete eta bertan geratu diren obretako lur eta hondakinak kendu. Garbiketa-zerbitzuaren kostua zikinkeria eragin dutenek ordaindu beharko dute, ezarri daitekeen zigorraren kaltetan izan gabe. Materialak garraiatu dituzten obretako enpresariak eta promotoreak izango dira erantzule subsidiarioak.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

2. Obretako baimenaren titularra izango da bide publikoko zoladuran eragindako kalteen erantzulea, baita uriko gainontzeko egitura-elementuetan eta elementu apaingarrietan, hirugarren pertsonengan eragindako kalteen erantzulea ere, eta orokorrean, obretako lurak eta hondakinak sortzeagatik dauden debekuetan zehaztutakoaren erantzuleak ere bai. Edozein unetan, eta udal-agintaritzak hala agintzen badio, erantzuleak erretiratu egin beharko ditu baimendu gabeko lekuetan botatako lur eta hondakinak.

120. Artikulua.- Kontainerrak erretiratzea

Obretako kontainerrak ondorengo kasuetan erretiratuko dira bide publikotik:

1. Obra-baimena iraungitzen denean. Kontainer bat bide publikoan gehienez hamar egunez eduki daiteke, baimen berezia lortu den kasuetan izan ezik, edo Udalak, baldintza bereziak direla-eta, udalerriko zenbait gunetan bestelako mugak jarri dituen kasuetan izan ezik.
2. Interes publikoko arrazoiak daudenean, eta udal agintaritzak aldeaz aurretik hala eskatu badu, kontainerra 2 orduko epean erretiratuko da.
3. Kontainerrak gainezka egiten duenean, hau da, hondakinak kontainerraren punturik altuena baino 20 cm gorago daudenean. Kasu honetan, kontainerra erretiratu egingo da eta hustu. Udal ordezkariaren batek erretiratzeko abisua eman badio, kontainerra erretiratzeko gehienezko epea 4 lanordukoa izango da.
4. Obra baten ezingo da kontainer bat baino gehiago erabili. Kontainerra erretiratzekoan, bide publikoa garbi eta txukun utzi behar da, baita eragindako inguruak ere.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

III. ATALA.–OBRETA KO HONDAKINAK ERRETIRATZEA ETA ISURTZEA

121. Artikulua.- Lurrak erretiratzea

1. Herritarrek obretako lurrak eta hondakinak erretiratzen badituzte, honela egin dezakete:
 - a. Udalak baimendutako obretako kontainerretan, partikularren kontura kontratatuak badira eta, betiere, ordenantza honetan zehazten den guztia errespetatuz.
 - b. Baimendutako Hondakin Geldoen Zabortegean, edo Udalak edo Udalez gaineko Erakunde batek xede horrekin egokitutako edo baimendutako lekuetan.
2. Aurreko azpiatalean aipatzen diren obretako lurrak eta hondakinak erretiratzen direnean, obraren promotorea izango da bide publikoan eragiten den zikinkeria erantzulea eta kaltetutako guneak garbitzeko betebeharra ere izango du.

122. Artikulua.- Debekuak

Obretako lurrak eta hondakinak erretiratzeko orduan, debekatu egiten da:

1. Baimendutako baino material gehiago sartzea kontainerrean. Honez gain, ezin da kontainerrearen neurriak handitu ditzaketen elementu osagarriak jarri.
2. Obretako kontainerretan materia sukoiak, lehergarriak, toxikoak, kaltegarriak eta arriskutsuak dituzten hondakinak botatzea, baita ustel daitezkeen edo usain desatseginak eragin ditzaketenak eta, beste edozein arrazoi dela-eta, bide publikoa erabiltzen dutenentzat, auzokoentzat edo ingurunearen estetikarentzat osasungaitz, gogaikarri, kaltegarri, deseroso eta arriskutsu bihurtu daitezkeen hondakinak botatzea.
3. Obretako kontainerretan altzariak, tresnak, traste zaharrak eta antzeko hondakin-materialak botatzea.
4. Baimendu gabeko terreno publiko zein pribatuan hondakinak botatzea, baldin eta Udalak horretarako espresuki baimendu ez baditu.
5. Aurreko azpiatalean xedatutakoa urratzen dutenek zigorra jasoko dute.


IV. ATALA.–OBRETA KO LURRAK ETA HONDAKINAK GARRAIATZEA

123. Artikulua.- Garraioa

1. Obretako lurrak eta hondakinak hiri-bideetatik garraiatzeko orduan, ordenantza honetan xedatutakoari jarraituko zaio.
2. Ordenantza honetan xedatutako guztia beteko da, kasu bakoitzean ezar daitezkeen gainontzeko araudiaren kaltetan izan gabe.

124. Artikulua.- Garraiorako ibilgailuak

1. Obretako lurrak eta hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek, edukia bide publikoan ez sakabanatzeko baldintzak beteko dituzte.
2. Ibilgailuak kargatzeko orduan neurriak hartuko dira bide publikoa ez zikintzeko.
3. Kamioian egingo den garraioari dagokionez ezarritako baldintzak beteko dira une oro. Karga estali egingo da materialak sakabanatu ez daitezen eta karga erori ez dadin. Zirkulazio Kodean ezarritako preskripzioak bete beharko dira. Obra-hondakinak gauez edo argitasun gutxiko ordutan garraiatzen badira seinale distiragarriak erabiliko dira.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. Debe katuta dago garraiatutako materialak kamioiaren kaxaren edo kontainerraren kaxaren goialdeko ertzak gainditzea. Debe katuta dago, halaber, baimendu gabeko gehigarriak erabiltzea ibilgailuen eta kontainerren neurriak eta edukiera areagotzeko.
5. Garraiatutako materialak estali edo babestu egingo dira hautsik zabaldu ez ditzaten eta hondakin-materialak isuri ez daitezen.


125. Artikulua.- Karga, deskarga eta garraio-lanen garbitasuna

1. Obretako lur eta hondakinen garraiolariek zikindutako bidearen zatia berehala garbitu behar dute. Udaleko agintariek debe katatu egin dezakete obrako ibilgailuen sartu-irtenak harik eta gune kaltetua garbitu arte.
2. Gainera, baimendu gabeko lekuetan isurtzen dituzten obretako lurak eta hondakinak ere kendu edo garbitu egin behar dituzte edozein unetan, betiere Udal Agintaritzak hala eskatzen badu.
3. Zoladura, higigarri urbanoa edo zuhaitz bat edo estetikako elementu bat hondatzen badira, berehala jakinaraziko zaio administrazioari, garraio-enpresaren datuak, kontainerraren erabiltzailearen datuak, lekua eta bestelako datuak emanez.
4. Udal-zerbitzuek bide publikoa garbitu dezakete edo isuritako materialak kendu ditzakete eta eragindako elementuak konpondu, eta lan horien ondorioz sortzen diren gastuak zikinkeria erantzuleak ordainduko ditu, dagokion zigorraren kaltetan izan gabe.
5. Aurreko azpiatalean xedatutakoari dagokionez, obretako lurren eta obra-hondakinen garraioa egin duten enpresariak eta promotoreak izango dira erantzule solidarioak.
6. Obretako lurren eta hondakinen erantzukizuna udal zerbitzuek jarritako lekuetan deskargatutakoan amaituko da.

V. ATALA.-ORDUTEGIA

126. Artikulua.- Ordutegia

1. Obretako lurak eta hondakinak laneko ordutegiaren barruan utziko dira kontainerretan, bizilagunei inolako trabarik eragin gabe.
2. Debe katuta dago obretako kontainerrak kalean egotea, larunbateko eguerditik asteleheneko zazpiak arte.
3. Aurreko puntuan ezarritakoa urratzen bada, zigorra jasoko da, dagokien udal-zerbitzuek horretarako baimenik eman duten kasuetan izan ezik.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

VIII. KAPITULUA.– HONDAKIN SOLIDOAK TRATATZEA ETA DESEGITEA ETA ZABORTEGIAK

I. ATALA.–BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA

127. Artikulua.- Xedea

Titulu honek udalerrian sortutako hondakin solidoak nola tratatu arautuko ditu, baldin eta hondakinok udalerrian sortuak badira eta, Udalak hala baimendu ostean, instalazio eta ekipamenduetan tratatu edo desegin badaitezke. Era berean, zabortegek ere arautuko ditu, baimenduak zein baimenik gabekoak.

128. Artikulua.- Debekuak

1. Debekatuta dago hondakinak abandonatzea.
2. Ordenantza honen ondorioetarako, abandonutzat joko da ingurunean hondakin-materialak kontrolik gabe utzitako jarduera oro.
3. Debekatuta dago edonolako hiri-hondakin solido edo industria-hondakin solido erraustea kalean, galdaretan eta berogailuetan. Berau, errausketa labe egokietan egin behar da, kea behar bezala depuratu dadin. Eta honetarako, Udalaren baimena beharko da izan.

129. Artikulua.- Materialak eta gauzatze subsidiarioa

1. Hondakin-materialak jaso ondoren, Udala bilakatuko da hondakinon jabe. Hondakinen artean aurki daitezkeen objektu baliagarriak galdutzat joko dira.
2. Udal-zerbitzuek abandonaturiko hondakinak jaso, garraiatu, tratatu edo desagerrarazi ditzakete, eta eskainitako zerbitzuaren kostua hondakinak sortu duenari egotziko zaio, ezar daitezkeen zigorraren kaltetan izan gabe eta hondakinak utzi izanagatik izan daitezkeen erantzukizun zibilen edo kriminalen kaltetan izan gabe. Hondakinak jasotzen diren unetik udalarenak izango dira.

130. Artikulua.- Zerbitzua eskaintzea

Udalak eskainiko du hondakinak tratatzeko edo desagerrarazteko zerbitzua, eta horretarako kudeaketa zuzena edo zeharkakoa erabiliko du edo, bestela, kontsorzioak edo partikularrekin egindako kontzertu edo bestelakoak.

131. Artikulua.- Hondakinak uzteko baimena


1. Udalak baimena eman ahal die partikularrei hondakinak utzi ditzaten berauek tratatzeko edo desegiteko instalazioetan era jarraian edo noizean behin.
2. Edozein baimen-mota lortzeko, erabiltzaileak dagokion eskaera egin behar du udaleko zerbitzuetan eta hauek, kasua aztertu ondoren, baimena ematea komeni ote den erabakiko dute, baita baimenaren baldintzak zehaztu ere.

132. Artikulua.- Udalaren helburuak hondakinen tratamenduari dagokionez

1. Udalak, bere ahalmenak gauzatuz, hondakin-materialak berreskuratze eta baloratzeko ekimenak sustatuko ditu.
2. Udalak, era berean, ekimenak sustatuko ditu ondasun berriak fabrikatzeko hondakin berreskuragarriak berriz erabili daitezen.

133. Artikulua.- Tratamendua

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Udalak hondakin solidoak tratatzeagatik edo desagerrarazteagatik dagokion tasa ezarriko dizkie xede hori duten instalazioak erabiltzen dituzten guztiei.

II. ATALA.–HONDAKIN-EKOIZLEEN ERANTZUKIZUNAK


134. Artikulua.- Erantzukizuna

1. Hiri-hondakinak dauzkaten pertsonak Udalari emateko betebeharra dute, Udalak berauek birziklatu, baloratu edo desagerrarazi ditzan Ordenantza honetan zehaztutakoaren arabera. Udala, hondakinak eskuratzen dituen unetik, beraien jabe izango da, eta aipatutako hondakinek eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna ez da hondakinak zituzten pertsonena izango, baldin eta hiri-hondakinak Udalari emateko orduan ordenantza honetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa kontuan hartu bada.
2. Era berean, eta Udalak baimendu ostean, hondakinak kudeatzaile baimendu edo erregistratu bati eman ahal zaizkio birziklatu edo baloratu ditzan.
3. Hiri-hondakinen ekoizle edo edukitzaileek baimenik ez duen hirugarren bati ematen badizkiete beren hondakinak garraiatzeko, tratatzeko edo desagerrarazteko, hondakinon inguruan izan daitezkeen edozelako kalteen erantzukizuna berena izango da, eta aurre egin beharko dizkiete ezarri daitezkeen zigorrak.
4. Hiri-hondakinen ekoizle edo edukitzaileek, hondakinon ezaugarri bereziak direla-eta arazoak sortu baditzakete garraiatu, bildu, baloratu edo desagiterako orduan, informazio eman beharko diote Udalari hondakinon jatorri, bolumen eta ezaugarriak buruz.
5. Aurreko puntuan esandakoaren kaltetan izan gabe, Udalaren iritzia araberak eta eskumeneko erakundeek luzatutako txostenen arabera, hiri-hondakinen ezaugarriak direla-eta arriskutsutzat hartu daitezkeenean, edo hondakinak biltzea, garraiatzea, baloratzea edo desagerraraztea zaila den kasuetan, hiri-hondakinen ekoizleak edo edukitzaileak, Udalak hiri-hondakinok jaso baino lehen, ahal den neurrian, neurriak hartuko ditu aipatutako ezaugarriak desagerrarazteko edo murrizteko, edo bestela, hiri-hondakinak leku eta modu egokian bildu beharko ditu.
6. Honako azpiatal honetan araututako kasu orotan, baita etxebizitza partikularretan sortzen diren hondakinetatik desberdinak diren hiri-hondakinen kasuan ere, Udalak hiri-hondakinen jabeak behartu ahal ditu horiek kudeatzera, betiere horretarako arrazoirik badago.

III. ATALA.–ZABORTEGIAK

135. Artikulua.- Biltegiak eta zabortegeak

Hondakinak bildu, tratatu, baloratu eta desagerrarazteko instalazioak jarduera sailkatutzat hartuko dira, pertsonen, ondasunen edo ingurumenaren arazoak eta kalteak eragin dizkietenak. Honela, berauek instalatzeko lizentziak aipatutako jarduera horiek erregulatzen dituzten arauak ezartzen dutenaren arabera tramitatuko dira.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

136. Artikulua.- Zabortei klandestinoak

Aurreko artikuluan ezarritakoa betetzen ez duten zabortei klandestinoak joko da eta berehala itxiko, aurreikusitako zigorraren eta sor daitezkeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

IX. KAPITULUA.–HONDAKIN ARRISKUTSUAK


I. ATALA.– BALDINTZA OROKORRAK ETA EZARPEN-ESPARRUA

137. Artikulua.- Xedea

Kapitulu hau, hondakin arriskutsuak sortzen dituzten jardueren eta berauek kudeatzen dituzten jardueren ezarriko zaie.

138. Artikulua.- Hondakin arriskutsuak

1. Hondakin arriskutsuak dira araudian horrela zehaztuta daudenak.
2. Hondakin arriskutsuak honako hauek dira:
 1. Lehen-ekoizpenean sortutakoak, nekazaritzakoak, baratzezaintza, ehiza, arrantza eta elikagaiak prestatzeko eta lantzeko akuikulturakoak.
 2. Zuraren eraldaketaren eta paper-ekoizpenaren hondakinak, paper-orea, oholak eta altzariak: zuraren kontserbaziorako tratamendu-prozesuen hondakinak.
 3. Ehungintza-industriako eta larrugintza-industriako hondakinak.
 4. Petrolio-errefinaketa hondakinak, gas naturalaren arazketakoak eta ikatzaren tratamendu pirolitikoak.
 - 4.1. Lokatz eta hondakin solido oliotsuak.
 - 4.2. Iragazketa-buztinak.
 - 4.3. Ikatzen tratamendu pirolitikoaren hondakinak.
 - 4.4. Gas naturalaren arazketakoak.
 - 4.5. Olio birsortzearen hondakinak.
 5. Prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak.
 - 5.1. Disoluzio azidoen hondakinak.
 - 5.2. Disoluzio alkalinoak.
 - 5.3. Gatzen eta berauen disoluzioen hondakinak.
 - 5.4. Metalak dituzten hondakinak.
 - 5.5. Halogenoen prozesu kimikoen hondakinak.
 - 5.6. Beste zenbait prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak.
 6. Prozesu kimiko organikoen hondakinak.
 - 6.1. Oinarritzko produktu kimiko organikoen formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabileratik (FFBE) ateratako hondakinak.
 - 6.2. Plastikoa, kautxu sintetikoa eta zuntz artifizialen FFBEren hondakinak.
 - 6.3. Tindagai eta pigmentu organikoen FFBEren hondakinak.
 - 6.4. Pestizida organikoen FFBEren hondakinak.




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 6.5. Produktu farmazeutikoen FFBEren hondakinak.
- 6.6. Gantz, xaboi, detergente, desinfektagarri eta kosmetikoen FFDEren hondakinak.
- 6.7. Beste kategoria batean sailkatu ez diren produktu kimikoen eta kimika finaren FFBEren hondakinak.
- 7. Estalduren formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabileraren hondakinak (pinturak, berniz organikoak eta beirazko esmalteak), kolak, zigiluak eta inprimaketa-tintak.
 - 7.1. Pintura eta bernizaren FFBEren hondakinak.
 - 7.2. Inprimaketa-tinten FFBEren hondakinak.
 - 7.3. Kolen FFBEren hondakinak (iragaizkaitasuna lortzeko produktuak barne).
- 8. Argazki-industriako hondakinak.
- 9. Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoak.
 - 9.1. Zentral elektrikoetako eta beste zenbait errekuntza-plantetako hondakinak.
 - 9.2. Aluminioaren termo-metalurgiaren hondakinak.
 - 9.3. Berunaren termo-metalurgiaren hondakinak.
 - 9.4. Zinkaren termo-metalurgiaren hondakinak.
 - 9.5. Kobrearen termo-metalurgiaren hondakinak.
- 10. Metalen tratamendutik eta estalduratik eta hidrometalurgia ez-burdinazkotik ateratako metaldun hondakin ez-organikoak.
 - 10.1. Hondakin likidoak eta metalen tratamendutik eta estalduratik ateratako lohiak (esate baterako, galbanizazio-prozesuak, zinkaren estaldura-prozesuak, desugertze-prozesuak, grabaketa, fosfatazioa eta deskoipeztapen alkalinoa).
 - 10.2. Prozesu hidrometalurgiko ez-burdinazkoen hondakinak eta buztinak.
 - 10.3. Tenplaketa-prozesuetako lohiak eta solidoak.
- 11. Metalen eta plastikoen azalera: moldeatuaren eta tratamenduaren hondakinak
 - 11.1. Moldeatuaren hondakinak (forjaketa, soldadura, prentsatze, trefilatze, torneatze, mozketa eta fresaketa barne).
 - 11.2. Urez eta lurrunez egindako deskoipeztatze-prozesuaren hondakinak.
- 12. Erabilitako olioak (elikagai bezala erabiltzen diren olioak izan ezik)
 - 12.1. Olio hidraulikoak eta balazta-olioak.
 - 12.2. Motore eta engranajetan erabilitako olio lubrifikatzaileak.
 - 12.3. Beroa isolatzeko eta igortzeko olioak eta beste hainbat likido.
 - 12.4. Sentinetako olioak.
 - 12.5. Ura/olioa banatzaileen hondarrak.
 - 12.6. Beste kategorietan zehazten ez diren olioak.
- 13. Disolbatzaile bezala erabilitako substantzia organikoen hondakinak.
 - 13.1. Metalak deskoipeztatzetik eta makineria mantentzetik sortutako hondakinak.
 - 13.2. Ehunak garbitzetik eta produktu naturalak deskoipeztatzetik sortutako hondakinak.
 - 13.3. Industria elektronikoko hondakinak.
 - 13.4. Aerosol eta aparren hoztaileen eta propelenteen hondakinak.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 13.5. Disolbatzaileak eta hoztaileak berreskuratzetik lortzen diren hondakinak (distilazioaren hondakinak).
14. Katalogoaren beste kategoria batean zehazten ez diren hondakinak.
 - 14.1. Baztertutako ekipoak eta prentsatzeko hondakinak.
 - 14.2. Lehergarrien hondakinak.
 - 14.3. Pilak eta akumuladoreak.
 - 14.4. Garraiorako eta biltegiratzeko deposituak garbitzetik sortutako hondakinak.
15. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak (errepideen eraikuntza barne): Amiantoaren duten isolamendurako materialak.
16. Osasun-zerbitzuetako edo albaitaritza-zerbitzuetako edo horrekin lotutako ikerketa-zerbitzuetako hondakinak (sukaldeko eta jatetxeetako hondakinak izan ezik, osasun-zainketaetatik zuzenean sortuak ez direlako).
 - 16.1. Amaetxeetako hondakinak, giza gaixotasunen diagnostikoa, tratamendua edo prebentzioaren ondorioz sortutako hondakinak.
 - 16.2. Animalien gaixotasunen ikerketa, diagnostikoa, tratamendua edo prebentzioaren ondorioz sortutako hondakinak.
17. Hondakinak tratatzeko instalazioen hondakinak, hondakin-urak tratatzeko plantena eta uraren industriarenak
 - 17.1. Errausketa-hondakinak edo jatorri komertzial, industrial edo instituzionala duten udaleko hondakinen pirolisia.
 - 17.2. Industria-hondakinen tratamendua fisiko-kimikoen hondakinak (esate baterako, deskromatizazioa, deszianurifikazioa eta neutralizazioa).
 - 17.3. Beiraturako hondakinak eta beiratzearen ondorioz sortutako hondakinak.
 - 17.4. Beste kategoria batean zehazten ez diren hondakin-uren tratamendurako planten hondakinak.

139. Artikulua.- Salbuespenak


Ezarpenera esparrutik kanpo geratuko dira: hondakin erradioaktiboak, meatzaritzako hondakinak, atmosferara egiten diren igorpenak eta araudiak erregulatzen dituen estolderia eta ur-ibilbideetara isuritakoak.

140. Artikulua.- Erantzulea

1. Hondakinak titular erantzule bat edukiko du beti, hau da, hondakinak ekoiztu, eduki edo kudeatzen dituenak.
2. Hondakinak dituztenek, baldin eta beraiek kudeatzen ez badituzte, hondakin-kudeatzaileari emango dizkiote hondakinak neurtu eta desegin ditzan. Beste aukera bat da, borondatezko akordio bat edo lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea.
3. Hondakinak dituztenak, hondakinak eurekin diren bitartean, derrigortuta daude baldintza egokietan gordetzera higienari eta segurtasunari dagokionez.
4. Hondakinak baimendutako kudeatzaileen esku uzten dutenek ez dute administrazio-mailako erantzukizunik izango, beti ere, hondakinak indarrean dagoen araudiaren arabera entregatzen badituzte. Edozelan ere, hondakinon entrega hau agiri baten bitartez egiaztatuko da.

141. Artikulua.- Hondakin arriskutsuen ekoizle txikiak

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Ekoizle txikitat joko ditugu urtean hondakin toxiko eta arriskutsuen 10.000 kilografo baino gutxiago produzitzen dutenak, betiere eskumeneko Administrazioaren erregistroan izaera horrekin izena emanda badaude.
2. Ekoizle txikiek, hala ere, idazpuru honetan eta esparru honetan indarrean dagoen araudiak bildurikoak bete behar dituzte.

142. Artikulua.- Hondakinen desagerraraztea saihestea

1. Hondakinak birziklatu edo baloratu ahal badira, birziklatu eta baloratu egingo dira eta, ahal den guztietan, saihestu egingo da hondakinak desagerraraztea.
2. Hondakinak dituenak ordaindu beharko ditu berauen kudeaketa-gastuak.

143. Artikulua.- Deposituan sei hilabete baino gehiago uztea

Hondakinak sei hilabete baino gehiago uzten badira, eta epe laburragoak arautzen ez badira, desagerrarazi egingo dira.

II. ATALA.- BAIMENAK ETA JARDUERA SAILKATUAK


144. Artikulua.- Jarduera sailkatua

Jarduera sailkatutzat hartuko dira hondakin arriskutsuak sortu, inportatu edo manipulatzeko dituzten industriak edo jarduerak. Beraz, hondakin arriskutsuak sortu, inportatu edo manipulatzeko dituzten industriak edo jarduerak instalatzeko, zabaltzeko edo erreformak egiteko alde aurretik lortu beharko da baimena, eta arlo honetan indarrean dagoen araudia ezarriko da.

X. KAPITULUA.- IKUSKATZEA, ZAINZA ETA KONTROLA

145. Artikulua.- Informazioa eta ikuskatzea

1. Hondakin arriskutsuen ekoizleek eta kudeatzaileek, Udalak hala eskatuta, hondakinak behar bezala kudeatzen dituela ziurtatzen duten dokumentazioa aurkeztu beharko dute ezarritako maiztasunaren arabera.
2. Hondakin arriskutsuen ekoizleak eta kudeatzaileak prest beharko dira egon eskumeneko udal-agintaritzak eskatu diezazkien edozelako lankidetzak eskaintzeko. Udal agintaritzak hala eskatzen badie, nahiz eta aurretik abisatu ez eta behar bezala identifikatu eta gero, ekoizle eta kudeatzaileek erraztasunak emango dizkiote azterketak, laginketen kontrolak, informazio-bilketa eta bestelakoak egin ahal izateko.
3. Ikuskatzeaz arduratzen direnek agintaritzak-agenta izaera izango dute, eta beraiek baieztatzen dituzten gertakariak eta, ondoren, akta batean formalizatuko dituztenak, frogatu moduan erabiltzeko balioa izango dute.
4. Hondakin arriskutsuen bilketa eta garraio-operazioen ikuskatzeak honakoak aztertuko dituzte: hondakinen jatorria, izaera, osaketa, kantitatea, tratamendu-mota, ebakuazioa eta azken xedea.
5. Ikuskatzearen kostua hondakin arriskutsuak ekoizten edo kudeatzen dituzten titularrei egotzi ahal zaizkie.
6. Indarrean dagoen araudiaren esparruan, hondakinak kudeatzeko borondatezko akordioak eta lankidetzak-hitzarmenak ezartzen badira, akordioek edo hitzarmenek kudeaketa-sistemaren funtzionamenduaren jarraipena eta ikuskatzea egiteko mekanismoak eduki behar dituzte. Jarraipenaren eta ikuskatzearen kostua akordioko ekoizle eta partaideei egotziko zaie.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

7. Borondatezko akordioek eta lankidetzak-hitzarmenek kolaboratzailearen figura aurreikusi dezakete. Kolaboratzailearen zeregina izango da borondatezko akordioaren edo lankidetzak-hitzarmenaren jarraipena egitea. Kolaboratzaileek ez dute ikuskatzaile izaera edukiko.

146. Artikulua.- Neurri kautelazkoak

Dagokion zehapen-espedientea ireki baino lehen, Udalak behartu egin dezake arau-haustetza jotako edozein gertaeraren ustezko erantzulea kautelazko neurri hauek hartu ditzan:

- a) Jarduera etetea.
- b) Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak prezintatzea.
- c) Beste era bateko zuzenketa, segurtasun edo kontrol neurriak hartzea, ingurumenari kalte gehiago ez eragiteko.

XI. KAPITULUA.– ZIGOR ARAUBIDEA

I. ATALA.–XEDAPEN OROKORRAK

147. Artikulua.- Arau-hausteak


Ordenantza honetan arautzen denari dagokionez, administrazio-mailako arau-haustea izango dira ordenantzaren edukia osatzen duten arauen aurkako ekintzak eta omisioak, baita adierazitako neurri zuzentzaileak ezarri beharri uko egitea edo jarrera desegokiak azaltzea ordenantza honetan arautzen diren alderdiei dagokienez.

II. ATALA.– SAILKAPENA

148. Artikulua.- Arau-hausteak

- 1. Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 108. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, arau-haustetza joko da titulu honetan eta hurrengo azpiataletan azaltzen diren zehazpenak ez betetzea. Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira.
- 2. Jarraian aipatzen direnak arau-hauste oso larriak dira, baldin eta pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean arrisku edo kalte oso larriak eragiten badituzte:
 - a) Ordenantza arautzaile honen baitako lanak, proiektuak eta jarduketak baimenik edo lizentziarik gabe hastea, edo baimenetan edo lizentzietan zehaztutako baldintzak bete gabe hastea. Bereziki, arau-hauste larritzat joko da hondakin-isurketak egitea dagokion administrazio-baimenik gabe.
 - b) Isurketak egiteko baimenak eta lizentziak bideratzeko eta emateko beharrezkoak diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
 - c) Isurketa-jarduerak eteteko, ixteko eta/edo bukatzeko aginduak ez betetzea. Eta hala badagokio, ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.
 - d) Eraldatutako ingurumena birgaitzeko eta berreskuratzeko administrazioetik iritsitako aginduak ez betetzea.
 - e) Udalak hartutako kautelazko neurriak ez betetzea.
- 3. Arau-hauste larriak dira aurreko artikuluan zehaztutako jarduketa guztiak, baldin eta pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean arrisku edo kalte larriak eragiten badituzte. Ondorengoak ere arau-hauste larriak izango dira:
 - a) Datuak ez aipatzea eta jardueren titularrei eskatzen zaizkien datuak ez aurkeztea.

DURANGOKO UDALAREN KALE GARBIKETA ETA HONDAKINAK ERRETIRATZEKO ORDENANTZA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- b) Udalaren ikuskatzea era batean edo bestean oztopatzea.
- 4. Arau-hauste arinak dira, aurreko bi azpiataletan oso larritzat edo larritzat sailkatutako guztiak, baldin eta pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean duten eragin txikiagatik bestela sailkatzea ezinezkoa den kasutan.


149. Artikulua.- Arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak

- 1. Arau-haustea arintzat, larritzat eta oso larritzat jo daitezke, eragin dituzten kalteak dirutan neurtu daitezkeenean. Irizpideak hauexek:
 - a) 6.000 €-tik gorako kaltea: arau-haustea oso larria izango da.
 - b) 3.000 € eta 6.000 € arteko kaltea: arau-hauste larria izango da.
 - c) 3.000 €-tik beherako kaltea: arau-hauste arina izango da.
- 2. Nolanahi ere, ezinezkoa balitz arau-haustearen izaera eta bere ondorioak dirutan neurtzea, arau-hauste oso larri, larri edo arinen sailkapena informe teknikoaren bidez egingo da.

150. Artikulua.- Zigorrak

Ordenantza honetako artikuluren batean aurreikusitako arau-haustea egiten badira, jarraian aipatzen diren zigorrak ezarri ahal dira:

- 1. Arau-hauste arinen kasuan:
 - a) 30,00 € - 50,00 € bitarteko isuna.
 - b) Instalazioak osorik edo zati batean ixtea, gehienez ere, urtebete.
 - c) Jarduerak bertan behera utzi behar izatea aldi batez, gehienez ere, urtebete.
 - d) Ohartarazpena.
- 2. Arau-hauste larrien kasuan:
 - a) 50,01 € - 200,00 € bitarteko isuna.
 - b) Instalazioak osorik edo zati batean ixtea, gehienez ere, hiru urtez.
 - c) Jarduerak bertan behera utzi behar izatea aldi batez, gehienez ere, hiru urtez.
- 3. Arau-hauste oso larrien kasuan:
 - a) 200,01 € - 450,00 € bitarteko isuna.
 - b) Instalazioak osorik edo zati batean behin betirako ixtea.
 - c) Instalazioak aldi baterako ixtea, gehienez ere, sei urtez.
 - d) Jarduerak bertan behera utzi behar izatea aldi batez, gehienez ere, sei urtez.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

151. Artikulua.- Beste zenbait arau-hauste

Ordenantza honetako erabakiak betetzen ez badira, eta dagokion artikuluan arau-haustea zehaztu gabe dagoen kasuetan, Alkatetzak zigorra bideratu eta ezarriko du, Toki Erregimenari buruzko legerian biltzen diren udal-ordenantza haustean aurreikusitako kopuruen arabera.


152. Artikulua.- Arau-hausteen tipologia

Ordenantza honek biltzen ez dituen hondakinei buruzko arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

153. Artikulua.- Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira:

1. Garbitasunaren esparruko araei dagokienez:
 - a. Bolumen txikiko hondakin solidoak bide publikoan uztea, hala nola papera, zigarrokinak, bildukiak, azalak edo antzekoak.
 - b. Ibilgailuetatik edozelako hondakinak botatzea bide publikora, ibilgailua geldirik egon zein martxan.
 - c. Bide publikoan arropa eta alfonbrak astintzea, edo balkoietatik, leihoetatik edo terrazetatik astintzea jarritako ordutegitik aparte, edo ordutegi barruan baina beste batzuei traba egiten zaienean.
 - d. Eraikinen kanpoaldean dauden landareak ureztatzea, bide publikoan edo bide publikoko elementuetan ura isuriz.
 - e. Bide publikoan txistua botatzea.
 - f. Obrei dagokienez, materialak edo langileak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako garbiketa sistematik ez aurreikustea.
 - g. Animaliak bide publikoan garbitzea.
 - h. Erakusleiho, salmenta-postu, denda edo antzekoen garbiketa-ordutegia ez betetzea, VIII. atalaren II. kapituluaren xedatzen dena.
2. Hondakinak erretiratzeko araei dagokienez:
 - a. Hondakinak edukiontzia kanpoaldean uztea eta orduz kanpo.
 - b. Edukiontzietako HHSak manipulatzeko.
 - c. Hondakinen gaikako bilketarako edukiontzietan okerreko hondakinak botatzea.
 - d. HHSen kontainerretan gaikako bilketa sistemako hondakinak sartzea.
 - e. Hondakinak edukiontzietara nahasirik botatzea, zerbitzuaren funtzionamendua oztopatuz.
 - f. Ezarritako arauak ez betetzea partikularrentzako eta merkatarientzako ordutegiei eta deposituei dagokienez.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

154. Artikulua.- Arau-hauste larriak


Arau-hauste larriak dira:

1. Bide-garbiketari buruzko xedapenei dagokienez:

- a. Zigarroak, puruak, zigarrokinak edo piztuta dauden bestelakoak zakarrontzietara edo edukiontzietara botatzea.
- b. Pertsonen zein animalien behar fisiologikoak bide publikoan asetzea. Animalien gorotzen kasuan, arau-haustetzat joko da horretarako dauden ekipamendu bereziak ez erabiltzea, baita animaliarekin jabeek eta/edo animaliarekin daudenek gorotzak berehala ez biltzea ere.
- c. Gutxienez bi poltsa iragazgaitz ez eramatea animalien gorotzak batzeko
- d. Bide publikora hondakinak botatzea leiho, terraza, balkoi eta eraikinetako bestelako elementuetatik.
- e. Bide publikoan, ibilgailuak konpontzeko eta garbitzeko lanak egitea, garbiketako urak isurtzea edo edonolako hondakin-material manipulatzeko baimenik gabe.
- f. Jarduera edozein delarik ere, bide publikoa ez zikintzeko neurriak ez hartzea.
- g. Bide publikoan egindako lanen ondorioz geratzen diren obra-hondakinak ez garbitzea.
- h. Bide publikoan eragindako zikinkeria berehala ez garbitzea.
- i. Eraikinak edo lokalen kanpoaldea behar den moduan ez izatea.
- j. Espaloiak, ibilbideak, galtzadak, enparantzak eta urbanizazio pribatu baten gainontzeko instalazioak behar den moduan ez izatea garbitasunari dagokionez.
- k. Barruko patioak, galeria komertzialak eta gainontzeko elementu pribatuak behar den moduan ez zaintzea garbitasunari dagokionez.
- l. Paper-ontziei kalteak eragitea.
- m. Elurteen kasuan, II. kapituluko VII. atalean aurreikusitako betekizunak ez errespetatzea.
- n. Titulu honek lizentzia edo baimenez ezartzen duena ez betetzea.

2. Hondakinei buruzko xedapenei dagokienez:

- a. Bilketa-zerbitzuen erabiltzaileek, inolako arrazoi justifikaturik gabe, beraiek sortutako etxeko hondakinak edo antzekoak udalaren esku ez uztea.
- b. Edukiontzien funtzionalitate edo estetikari kalteak eragitea.
- c. Hondakinen zamaketa-lanak eta garraioa oztopatzea.
- d. Hondakinak husteko estolderia-sarea erabiltzea.
- e. Errekara hondakinak botatzea.
- f. Beharrezkoak diren ikuskapenak eta baieztapenak eragozteak.
- g. Hondakin organikoak lur eta hondakinekin nahastea.
- h. HHSak bere lekutik ateratzea.
- i. Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

155. Artikulua.- Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak dira:

1. Bide-garbitetari buruzko arauei dagokienez:


- a. Hormigoia garraiatzeko ibilgailuei dagokienez, hormigoia garraiatzea deskargarako zuloa itxi gabe.
- b. Hormigoi-makinak bide publikoan garbitzea.
- c. Edonolako industria-hondakin likido, solido edo solido bihur daitekeena bide publikoan isurtzea.
- d. Hildako animaliak abandonatzea.
- e. Bide publikoan tresnak eta altzariak abandonatzea.
- f. Baimenik izan gabe, Titulu honetako I. kapitulutik III.era aurreikusitako jarduketak burutzea, baldin eta baimena behar badute.
- g. Uriaren garbitasunari dagokionez, Titulu honetako III. kapituluaren zehaztutako xedapenen aurka egitea, hau da, erabilpen berezi eta pribatiboari dagozkionak eta gauza bera agerpen publikoei dagokienez.
- h. Horma-irudiak, pankartak, banderatxoak, pegatinak edo antzekoak jartzea Udalak baimendutako lekuetatik kanpo.
- i. Bide publikoan edonolako pintadak egitea, esaterako, egitura elementuetan, bideetan, espaloietan eta higiezinetan egiten direnak eta, gauza bera, horma, estatua, monumentu eta kanpoko edozein elementuen gainean egiten direnei dagokienez. Salbuetsita geratzen dira araudi honen III. kapituluko III. atalean aurreikusten direnak.
- j. Bide publikoaren gainean edonolako panfleto, testu inprimatu edo antzekoak botatzea.

2. Hondakinei buruzko xedapenei dagokienez:

- a. HHSak zehaztutako lekuetatik at uztea, kontrolik gabeko isurketa-guneak sortuz.
- b. Toxiko eta arriskutsu bezala sailkatutako hondakinak edukiontzietan uztea.
- c. Hondakin arriskutsu eta toxikoei buruzko informazioa gordetzea.
- d. Hondakinak erretzea terreno publiko zein pribatuan.
- e. Bide publikoan animalia hilak uztea edo abandonatzea.
- f. Osasun publikorako arriskutsuak izan daitezkeen hondakinak horretarako jarrita dauden edukiontzietan ez uztea.
- g. Edukiontziei, nahita, kalteak eragitea.
- h. Arau-hauste larri bat baino gehiago egitea.

156. Artikulua.- Zigorraren zenbatekoa

1. Zigorraren zenbatekoa jartzerako orduan kontuan hartuko dira arau-haustea eragin zuten gertaerak, esaterako, arau-haustearen izaera, nahita edo behin eta berriro eginda izan den, eta aringarritzat edo astungarritzat hartu daitezkeen bestelako faktoreak.
2. Birjausletzat hartuko da aurreko hamabi hilabetetan arau-hauste bertsuak egin dituenak.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Etxeko animalien gorotzak gordetzeko ekipamendu berezien erabilpena dela-eta, honakoak hartuko dira kontuan:


1. Erabili beharreko ekipamenduak jartzen ez diren bitartean, eta higiene-mailako neurri saihestezin modura, bide publikoan txakurrak edo bestelako etxeko animaliak eramaten dituztenek ahaleginak egingo dituzte animalioak gorotzik edo txizarik egin ez dezaten oinezkoak dabiltzan lekuetan.
2. Ingurune urbanizatuan eginiko gorotzak bide-ertzean edo zintarri ondoan batuko dira.
3. Edozein kasutan, bide publikoan gorotz-hondakinak geratzen badira, animalia daramanak gorotzak batu eta erretiratu beharko ditu, eta garbitu egin beharko du zikindutako gunea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen dira Ordenantza honen aurka doazen udaleko arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguneko biharamunean.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ERANSKINA: TERMINOLOGIA

Ordenantza honen ondorioetarako kontuan hartu beharrekoa:

- **Prebentzioa:** Neurriak hartzea hondakinak sortu ez daitezen edo berauek gutxitzeko, eta gauza bera hondakinotan diren substantzia arriskutsu edo kutsagarriei dagokienez.
- **Ekoizlea:** Bere jarduera dela-eta hondakinak sortzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, edo hondakinok tratatu, nahastu edo aldarazten dituztenak. Halaber, ekoizletzat hartuko da Europar Batasuneko edozein Estatu kidetan hondakinak eskuratu edo inportatzen dituenak.
- **Edukitzaillea:** Hondakinak ekoizten dituen edo, kudeatu ez arren, hondakinok gordetzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa.
- **Kudeatzailea:** Hondakinak ekoiztu edo ekoiztu ez, hondakinon kudeaketaz arduratzen den pertsona edo erakunde publiko zein pribatua.
- **Kudeaketa:** Hondakinak biltzea, biltegitzea, garraiatzea, baloratzea eta desagerraraztea, jarduera horien zainketa barne. Halaber, hondakinak gordetzen edo isurtzen diren lekuak zaintzea.
- **Berrerrabilpena:** Erabilitako produktu bat hasiera batean diseinatu izan zeneko helburu berarekin erabiltzea.
- **Birziklapena:** Ekoizpen-prozesu baten barruan, hondakinak transformatzea erabili izan ziren bezala erabiltzeko edo beste era batera erabiltzeko. Konpostajea eta biometanizazioa ere sartzen dira, baina ez energia berreskuratzen duen errausketa.
- **Balorazioa:** Hondakinetan dauden baliabideak aprobetxatzea ahalbidetzen duen edozein prozedura, baldin eta gizon-emakumeen osasuna arriskuan jartzen ez bada eta ingurumenari kalteak eragin diezazkion metodorik erabiltzen ez bada.
- **Desagerraraztea:** Hondakinak, osotara edo partzialki, isurtzeko edo desegiteko erabiltzen den edozein prozedura, baldin eta gizon-emakumeen osasuna arriskuan jartzen ez bada eta ingurumenari kalteak eragin diezazkion metodorik erabiltzen ez badira.
- **Bilketa:** Hondakinak biltzea, sailkatzea, multzokatzea edo prestatzea, eta ondoren garraiatzea.
- **Gaikako bilketa:** Material organiko hartzigarri eta birziklagarriak banandurik biltzeko sistema. Halaber, hondakinetan diren material baloragarriak banatzea ahalbidetzen duen beste edozein sistema.
- **Biltegitratzea:** Hondakinak, baloratu edo desagerrarazi baino lehen, bi urtez gordetzea edo, sei hilabetez, hondakin arriskutsuen kasuan, beti ere epe laburragoak jartzen ez diren bitartean.

